



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Gorputz Hezkuntza eta genero estereotipoak Lehen Hezkuntzan: analisi kualitatibo bat

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Orueta Isusi, Ainhoa

Zuzendaria: Sainz de la Maza San Jose, Martin

2022-2023

LABURPENA

Gorputz Hezkuntzako irakasgaien oraindik ere genero estereotipoen presentzia dago eta generoarekin harremana duten desberdintasun handiak ematen dira. Gure gizartean oso sustraituak dauden ideia hauek, pertsona bat genero batekoa izateagatik nolakoa izan behar duen ezartzen dute. Hori horrela izanik, aintzat hartu behar da eskolak hauen hausturarako eta aldaketaren bidean ekiteko espazio paregabea direla, baina, aldi berean, genero estereotipoak transmititu edo iraunarazi ahal dituen ere.

Beraz, lan honen helburua Gorputz Hezkuntzako irakasgaien dauden genero estereotipoak zeintzuk diren ezagutzea da. Horretarako, analisi kualitatibo bat egin da, eta datuak biltzeko Gorputz Hezkuntzako irakasle talde bati elkarrizketak egin zaizkie; haien pertzepzioetik genero estereotipo desberdinen berri jakin da.

Lortutako emaitzetatik, ondorioztatu daiteke oraindik ere genero estereotipoak Gorputz Hezkuntzako klaseen egunerokotasunaren parte direla; ikasgelan ematen diren harremanetan, irakaskuntza prozesuetan eta ikasleen jarreran eta jokabideetan ikus daitezke, besteak beste. Gauzak horrela, agerian geratzen da genero ikuspegitik irakasleen prestakuntzan eta sentsibilizazioan lan egiten jarraitzeko beharra.

Hitz gakoak: Genero estereotipoak, Gorputz Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, analisi kualitatiboa.

RESUMEN

En la asignatura de Educación Física sigue existiendo la presencia de estereotipos de género y se dan importantes diferencias relacionadas con el género. Estas ideas que están muy arraigadas en nuestra sociedad establecen cómo debe ser una persona por pertenecer a un género. Así pues, hay que tener en cuenta que las escuelas son un espacio único para romper con esas ideas y emprender el camino del cambio, pero que a su vez también puede transmitir o perpetuar los estereotipos de género.

Por lo tanto, el objetivo de este trabajo es conocer los estereotipos de género existentes en la asignatura de Educación Física. Para ello, se ha realizado un análisis cualitativo y para recoger los datos se han llevado a cabo entrevistas a un grupo de profesores de Educación Física; desde su percepción se han podido identificar los diferentes estereotipos de género.

De los resultados obtenidos, se concluye que los estereotipos de género siguen formando parte del día a día de las clases de Educación Física; se pueden observar en las relaciones que se dan en el aula, en los procesos de enseñanza, en las actitudes y comportamientos

del alumnado, entre otros. De esta manera, se pone de manifiesto la necesidad de seguir trabajando en la formación y sensibilización del profesorado desde la perspectiva de género.

Palabras clave: Estereotipos de género, Educación Física, Educación Primaria, análisis cualitativo.

ABSTRACT

Gender stereotypes and gender related differences are still present in the subject of Physical Education. These ideas are deeply rooted in our society, and they establish how a person has to act depending on their gender. That makes schools an appropriate space to break with these ideas and work on the path of change, but they can also transmit or perpetuate those gender stereotypes.

Therefore, the aim of this work is to know the existing gender stereotypes in the subject of Physical Education. For this purpose, a qualitative analysis was completed and to collect the data were to conduct interviews to a group of Physical Education teachers; from their perception it was possible to identify the different gender stereotypes.

From the results obtained, it can be concluded that gender stereotypes are still part of day-to-day Physical Education classes; they can be observed in the relationships of the classroom, in the teaching processes, in the attitudes and behaviours of the students, among others. This highlights the necessity to continue working on teacher training and in awareness from a gender perspective.

Key words: Gender stereotypes, Physical Education, Primary Education, qualitative analysis.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA	4
3. MARKO TEORIKOA	6
3.1. Genero estereotipoak	6
3.2. Genero estereotipoen transmisioa eta iraunarazia hezkuntza arloan	7
3.3. Genero estereotipoak jarduera fisikoan eta kirolean	8
3.3.1. Gorputz Hezkuntza irakasgaia eta ikuspegi metodologikoa	8
3.3.2. Gorputz Hezkuntzako irakasgian ematen diren harremanak	10
3.3.3. Ikasleen jarrera kirolekiko eta jarduera fisikoarekiko	12
4. HELBURUAK	13
5. METODOA	14
5.1. Diseinua	14
5.2. Parte-hartzaileak	15
5.3. Tresnak	16
5.4. Prozedura	17
5.5. Analisia	18
6. EMAITZAK	19
6.1. Metodologia	19
6.2. Harremanak	23
6.3. Ikasleen jarrera kirolarekiko eta jarduera fisikoarekiko	27
7. ONDORIOAK	31
8. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK	35
9. ERREFERENTZIAK	36
10. ERANSKINAK	39
10.1. Eranskina: Elkarrizketarako gidoa	39

1. SARRERA

Azken urteotan, arlo guztietan lan egin da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarritutako gizarte bat lortzeko helburuz, baina egun berdintasun hori lortzeko bidean gaude oraindik. Horregatik, lan honetan genero esterotipoen inguruan mintzatuko gara. Gizarteak txikitatik gizon edo emakume izateagatik nolako jokaerak, jarrerak, interesak... izan behar ditugun ezartzen jarraitzen digulako; gizartean eraikitako estereotipoek eragiten baitute genero desberdintasun hori.

Nik txikitan euskal dantzak eta hockeya praktikatu ditut, eta seguru asmatu dezakezuela zeinetan den nabariagoa nesken kopurua eta zeinetan mutilena. Izan ere, egoera hauek ez dira kasualitatez ematen, ni ere emakumezkoen eta gizonezkoen kirolak daudenaren iritziarekin batera bizi izan naiz. Hau esanda, lan egin behar da txikitatik entzun duguna zalantzan jartzeko, horren inguruan hausnartzeko eta aldaketaren bidean ekiteko.

Horrela, ba, hurrengo lerroetan aipatu berri dugun gaiarekin erlazionatutako hainbat ideia, informazio eta baita analisi bat aurkitu daiteke. Hezkuntza esparruan gai hau lantzearen beharra justifikatu eta gero, lehenengo atalean, gaia kokatzeko eta lana osotasunean ulertu ahal izateko marko teoriko bat garatu da. Bigarren atalean, genero esterotipoen inguruan burututako analisiaren helburu desberdinak ikusi daitezke; jarraian, ikerketako parte-hartzaileak, erabilitako metodologia, tresna eta prozedura ezagutzera emanaz. Hurrengo atalean, genero esterotipoen presentziaren eta eraginaren inguruan bildutako emaitzak aurkeztuko dira, eta berarekin batera hauetatik aterako ondorioak. Amaitzeko, lana hobetze aldera egindako proposamenak irakurri daitezke.

2. JUSTIFIKAZIOA

Lan honetan gai hau lantzearen beharra edo jakin-mina, gradu osoan zehar hainbat ikastetxetan egindako praktiketan dauka jatorria. Bereziki, azken praktikak Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin batera burutu ondoren argi ikusi nuen irakasgai honetan genero estereotipoen transmisioak eta presentziak indarrean jarraitzen duela. Asko dira oraindik pentsatzen dutenak genero desberdintasunek jarduera fisikoa eta kirol mundua nabarmen baldintzatzen duten gizartean bizi garela. Eta eskola honetan eman nuen egonaldian nire iritzi hau berretsi nuen, praktiketan argi ikusi dudalako gizarteak transmititutako balioak argi islatzen direla eskoletan. Beraz, beste eskola batzuetan egoera hau bizi duten ere aztertzeko helburuarekin egin dut lan hau.

Gorputz Hezkuntzako ikasgaiaren agerikoak ziren genero estereotipoek ez zuten gelako bizikidetzaren positibo bat bultzatzen, eta Salazar eta Loorek (2019) adierazten duten bezala, bizikidetzaren on bat ez badago nekez ematen da ikaskuntza bat. Hortaz, lan honetan

kontuan hartu behar da, aditu askok Gorputz Hezkuntza ikasgaiak elkarrekin bizitzen ikasten eta gaitasun sozialak bereganatzen laguntzen duenaren ideia dutela. Azken finean, ikasleak etengabe harremanetan eta elkarrekintzan daude irakasgaiaren garapenean; eta zenbait trebetasun behar dituzte gauzak adierazteko eta entzuteko, elkar ezagutzeko eta bestearen lekuan jartzeko, parte-hartzeko, gatazkak konpontzeko, norberaren autonomia garatzeko eta norberaren eta taldearen interesak baloratzeko; hau guztia betiere errespetuzko jarrera batetik (Monzonis eta Capllonch, 2015).

Gelan giro egoki bat egon ezker, aipatu berri ditugun trebetasun sozial horien ikaskuntza eta presentzia bermatuko litzateke. Baina, praktikan ikusi nuen nola gizartean emakume eta gizonen ezarri zaizkien rol desberdinek ez zuten Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren elkarbizitza positibo bat bultzatzen. Ikasgela ikasleek pertsonalki garatu ahal izateko eremu komuna izan behar du, baina Rodriguez (2016) iritziz, genero estereotipoek ikasleek ekintzak eta harremanak mugatzen dituzte, maskulinoari eta femeninoari dagozkien jarrerak eta portaerak zehazten baitituzte; eta, hala, ikasleak erabakiak hartzeko edo ekintza jakin batzuk egiteko orduan mugatuta sentitzen dira. Esaterako, praktikan ikasgelan ematen ziren harremanetan, alde batetik, nesken eta mutilen harremanetarako moduak desberdinak ziren, aldi berean beraien arteko harremana ez zen ematen, eta gainera errespetu faltak, arazoak edota diskriminazio egoerak ohikoak ziren ikasleek artean.

Argi dago egoera honen aurrean irakasleek paper garrantzitsu bat jokatzen dutela. Azken finean, irakaslearen irakaskuntza eta jardueren programazio egoki batek genero estereotipoak alde batera uzten dituen hezkuntza bat bultzatu dezake (Lleixa *et al.*, 2020). Ikasgelan elkarbizitzen ikasi behar da, betiere gizartearen aniztasuna kontuan hartuta; eskolan iritzi, bizi estilo... desberdinez inguratuta bizi garelako, baita zenbait uste okerrez ere, genero estereotipoak, esaterako, baina hauek ez dute lekurik izan behar ikasgelan (Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González, 2019). Hortaz, ikasleek garapen kognitiboa, soziala, afektiboa eta motorra eduki dezaten, uste oker hauek alde batera utziz ikasleek irakaskuntza eta harremanak hobetzeko estrategia metodologiko desberdinak praktikan jartzea beharrezkoa da (Arencibia, 2021).

Esan bezala, nire ibilbide akademikoan ikusi dut genero estereotipoek Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren daukaten eragina nabarmena dela. Gauzak horrela, etorkizuneko irakasle izango naizen heinean gai honen inguruko lan bat egitea guztiz beharrezkoa ikusi dut. Egoera aldatzeko bidean gauden arren ni norbanako bezala oraindik ere gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortu ez den gizarte batean bizi naizelako. Horren ondorioz, nire buruan sustraituak ditudan ideia estereotipatuak daude eta hauek etorkizun batean nire irakaskuntza prozesuetan transmititu ditzaket. Beraz, uste dut berdintasunean

oinarritutako gizarte bat lortzen laguntzeko modu egokiena, genero estereotipoen presentziaz ohartzea eta hauetaz hausnartzen hastea dela.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. Genero estereotipoak

Lehenik eta behin, beharrezkoa da lan honi dagozkion hainbat kontzeptu garrantzitsu argitzea eta testuinguratzea; generoa, estereotipoak eta genero estereotipoak bezalakoak. Generoa definitzeko definizio anitzak aurkitu ditzakegu; alde batetik, Salazar eta Loorek (2019), gizarte eta kultura bakoitzak gizonentzat eta emakumeentzat egokitzen dituen funtzioen, portaeren, jardueren eta ezaugarrien gizarte kontzeptuei dagokiola esaten dute. Beste aldetik, Garcia-Prieto eta Arriazu-Muñozek (2020) adierazten dute, generoa sorkuntza soziokultural bat dela, eta feminitatea ezartzen zaio emakumearen gorputzari eta maskulinitatea, berriz, gizonaren gorputzari. Gizonak eta emakumeak ez garelarik biologikoki programatuta jaiotzen emakume edo gizon izateagatik modu zehatz batean jokatzeko edo pentsatzeko.

Guk lan honetan, Salazarrek (2020) esandakoarekin bat eginez, generoa eraikuntza soziokultural gisa hartuko dugu, gizonari eta emakumei portaera jakin batzuk esleitzen dizkiena; eta bakoitzak gizartean garatzen dituen rolei eta jardueri dagokienez bereizten dituenak. Alderdi femeninoa eta maskulinoa ezartzen dituen desberdintasun horrek, aldi berean, hierarkiak indartzen ditu batzuen eta besteen artean, hau da, botere harremanak eta desberdintasun egoerak sortzen ditu haien artean (Salazar, 2020).

Era berean, Rodriguezek (2016) estereotipoak, gizarte jakin bateko pertsona talde batek partekatzen dituzten ezaugarri eta sinesmen multzo bat bezala definitzen ditu. Baita gizarte bateko parte diren kolektiboek buruzko orokortzeak sortzeko joera duten aurreko pentsatutako eta sozialki onartutako ideiak dira (Salazar, 2020). Gauzak horrela, genero estereotipoak mutil edo neska izateak zer esan nahi duen adierazten duten sinesmen partekatuak bezala ulertu ahal ditugu (Morfonte eta Úbeda-Colomer, 2019). Edota, kultura edo talde baten barruan genero bakoitzak izan behar dituen ezaugarriak, funtzioak eta jokabideak buruzko ideia multzo egituratu gisa (Espinoza eta Tapia, 2019).

Beraz, aurrekoan oinarrituta, lan honetan genero estereotipoak gizartean eta gizakietan genero femeninoari eta maskulinoari buruz ezarritako ideia edo sinesmen multzoak dira; ezaugarri fisikoei, trebetasunei, nortasunari, portaerari, rolei eta zereginei buruzkoak. Gainera, orokortze gisa jokatzeko dute eta genero bakoitzari pareko ezaugarriak esleitzen dizkiete, hortaz, ez dituzte kontuan hartzen ageriko desberdintasunak. Hori dela eta, espazio

eta garai desberdinetan aldatzen diren aldez aurretik pentsatutako ideak dira, pertsona bat genero batekoa izateagatik nolakoa izan behar duen ezartzen dutenak (Ramirez, 2021).

Genero estereotipoak oso sustraituta daude gizartean eta oso erraz transmititzen dira, gizonengandik eta emakumeengandik espero diren portaerak eta izaerak oso markatuta eta kontrolatuta daudelako (Garcia-Prieto eta Arriazu-Muñoz, 2020). Izan ere, jaiotzen garenetik sozializazio prozesuaren bidez barneratzen ditugu, beraz, ondoriozta dezakegu ez direla jatorrizkoak baizik eta ikasi egiten direla (Salazar, 2020). Gainera, genero estereotipoak belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira, eta denborarekin ahaztu egiten da gizarte-erakuntzak direla, eta egia absolututzat hartzen ditugu (Arencibia, 2021).

3.2. Genero estereotipoen transmisioa eta iraunarazia hezkuntza arloan

Genero estereotipoen transmisioa hezkuntza arloan aztertzearen garrantzia, sozializazio prozesu horretan eskolek paper handi bat jokatzeko dutelako ematen da, genero estereotipoak transmititu, garatu eta betikitzen dituen esparru nagusi bat delako (Salazar, 2020). Ikasle bakoitzaren familia lehen agente sozializatzailea izan arren, eskolaren funtsezko zereginetako bat sozializazio prozesua zuzentzea da ere (García-Villanueva *et al.*, 2017).

Hori horrela izanik, sozializazio prozesua gizabanakoek bizi diren testuinguru sozial eta historikotik abiatuta, arauak, rolak, balioak, jarrerak eta sinismenak txertatzen dituzten prozesutzat hartzen da. Hau sozializazio agente batzuen bidez gertatzen da, hala nola, familia eta hezkuntza erakundeak (Cázar, 2019). Prozesu honetan, eskolan adibidez, gizabanakoek genero identitate jakin bat eratzen dute eta portaerak, ohiturak, estereotipoak eta rolak ikasten dituzte, kulturak gizonentzat edo emakumeentzat ematen dituen ereduetatik abiatuta (Salazar eta Loor, 2019).

Genero estereotipoak ikasgelen eguneroko elkarrekintzaren parte dira (Arenas *et al.*, 2022); eta ikasleak adin goiztiarretatik ideia eta pentsamendu hauen transmisioarekin ikusgai bizi dira (Ramírez, 2021). Genero estereotipoak hainbat modutan eta leku desberdinetan agertzen dira, eta ondorioz, Salazarrek (2020) esaten duen bezala ikasleek jasotako ideia hauek hezitzaileek indartzen dituzte egunero ikasgela. Bait, irakasleek, ikasgela irakasten dituzten edukietan, erabiltzen duten hizkuntzan edota gelako esperientzien plangintzan; hau da, beraien irakaskuntza prozesuetan, kontzienteki edo konturatu gabe azaleratzen eta transmititzen dituzte (Espinoza eta Tapia, 2019).

Azken finean, irakasleak bizi diren gizartean formatzen dira, hartara, zenbait ideia estereotipatu bereganatzen dituzte, aurkitzen diren garaiaren eta kulturaren arabera (Ramírez, 2021). Gainera, Salazarrek (2020) aipatzen duen bezala, irakasleek genero

estereotipoak batzuetan nahi gabe transmititzen dituzte hain barneratuak dituztenez nekez antzematen dituztelako. Beraz, hezitzaileak ideia horiek ez transmititzearen adi egon behar dute; beraiengandik has daitezke arazo honen aurreko jarrera aldaketak (Lleixa *et al.*, 2020).

3.3. Genero estereotipoak jarduera fisikoan eta kirolean

Genero estereotipoen eta hezkuntzaren inguruan hitz egitean, ezinbestekoa izango da Gorputz Hezkuntza irakasgaia aintzat hartzea; egile anitzek baieztatzen dutelako hauen presentzia alor honetan nabaria dela (Sanz, 2016; Naberan, 2017; Lleixa *et al.*, 2020; Arencibia, 2021; Arenas *et al.*, 2022). Esaterako, Serrak *et al* (2020) baieztatzen du, gizartean aldaketak eman diren arren, oraindik ere genero estereotipoak eta desberdintasunak gorputz hezkuntzan bereziki nabarmentzen direla. Ere bai, Alemanyk *et al* (2019) esparru honetan genero estereotipo tradizionalen errepikapena nabaria dela adierazten du; jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan, pertsonen emandako trataeran generoarekin erlazio zuzena duten desberdintasun handiak ematen direla justifikatuz.

Aspaldiko bereizitako eskola tradizionalan, irakasgai honetan mutilei gizontasuna lortzeko heziketa ematen zitzairen eta neskei, aldiz, soinketa erritmiko batean oinarritutakoa (Naberan, 2017). Geroago, aurrerapenak egon ziren arren, hezkuntza mistoa ezartzeak ez zuen ekarri genero eredu eta harreman tradizionalak haustea, ezta eremu honetan nesken eta mutilen arteko berdintasunerantz aurrera egitea. Ikuspegi egokirik gabe, genero ereduak betikotzen jarraitzen da curriculum androzentriko baten bidez, eta feminitate eta maskulinitasun ereduak errepikatzen jarraitzen dira (Serra *et al.*, 2020).

Garcia-Prieto eta Arriazu-Muñozek (2020) ezagutzera ematen diguten bezala, ikasgelen egunerokotasunean genero estereotipoak modu eta leku askotan agertzen dira, eta irakasle zein ikasleetan ageri dira. Ondorioz, jarraian Gorputz Hezkuntzako irakasleen irakaskuntza prozesuetan genero estereotipoen presentzia eta eragina aztertzen dituzten ikerketa desberdinen inguruko informazioa aurkitu daiteke. Ondoren, ikasgelen parte hartzen duten eta elkarri eragiten dioten pertsonen arteko harremanetan hauek duten indarra aztertu da. Amaitzeko, ikasleek kirolarekiko eta jarduera fisikoarekiko duten jarreraren, gizartearen eraginaren ondorioz barneratuta dituzten ideia hauek nola eragiten duten ikusiko da.

3.3.1. Gorputz Hezkuntza irakasgaia eta ikuspegi metodologikoa

Gorputz Hezkuntzako ikasgaietan genero estereotipoen eragina aztertzen duten hainbat ikerketa daude, eta hauek aintzat hartuz beharrezkoa izango da irakasleetan eta beraien lanean arreta jartzea. Irakaskuntza lana hezitzaile batek eskola barruko irakaskuntza prozesuan egiten duen lanari dagokio. Irakaskuntzak ikasgelen gertatzen eta egiten den

guztiarekin du zerikusia, esate baterako, irakaslearen praktika sozialarekin, metodologiekin, erabilitako baliabideekin eta edukien aukeraketarekin (Ramirez, 2021).

Beraz, genero estereotipoak gorputz hezkuntzako curriculumak betikotu eta transmititu ditzake (Nabera, 2017). Metodologia irakasgaiaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua planifikatzeko erabiltzen diren estrategia eta ikuspegi pedagogikoen multzoa da (Ramirez, 2021). Horregatik, esan daiteke irakasleak egiten dituen jarduerak, curriculumeko edukiak eta erabiltzen dituen baliabide didaktikoak genero estereotipoak mantentzeko edo hausteko tresna izan daitezkeela (Morfonte eta Úbeda-Colomer, 2019).

Sanzek (2016) baieztatzen du, Gorputz Hezkuntzako curriculumaren barruan kirolari emandako balioa dela irakasleek genero estereotipoak transmititzen lagundu duen faktore bat. Irakasgai honetako edukietan kirolen presentzia ugari da, eta hauek bereziki kirol tradizionalari lotuta egon izan dira, adibidez, futbola eta saskibaloia (Arenas *et al.*, 2022). Honen ondorioz, autore batzuk curriculum maskulinizatua nabarmentzen dute. Izan ere, batzuen ustez araututako kirolekin, eraginkortasunean eta emaitzetan bakarrik oinarritutako Gorputz Hezkuntza lantzeak, neska gehienak eta maskulinotasuaren ereduaren kokatzen ez diren mutilak, ikasgaiaren gaitasun eta aukera gutxiagorekin kokatzen ditu (Serra *et al.*, 2022).

Gorputz Hezkuntzako irakasgaiaren, curriculumaren, batez ere gaitasun moterretan oinarritu izan da, esaterako, indarra, abiadura edo erresistentzia. Eta batzuetan, beste gaitasun batzuk, hala nola, kooperazioa, parte hartzea, norberaren gorputza ezagutzea, baita beste gaitasun fisiko batzuk ere: koordinazioa, erritmoa eta oreka ez dira lehenetsi (Hidalgo eta Almonacid, 2014). Gauzak horrela, Gorputz Hezkuntza urte luzez estereotipatu izan den esparrua da; gizakiaren agresibitatea, inimiztatea, indarra... eskatu dituelako, eta ezaugarri horiek gizonezkoen "berezkoak" direlako. Horren ondorioz, arlo honetan gizonezkoek duten nagusitasuna genero estereotipoen ondorio da (García-Villanueva *et al.*, 2017).

Horren haritik, aipatu beharra dago Arenasek *et al* (2022) baieztatzen duela, adinak eta kursoak aurrera egin ahala, ikasleen gogobetetze eta motibazio mailak nabarmenki jaisten direla nesketan. Emakumearen kirolarekiko interes falta nondik datorren ulertzeko, Alemanyk *et al* (2019) adierazten du emakumeek kirolari buruz erakusten dituzten jarrera negatiboetako batzuk kirolaren eta maskulinotasuaren arteko lotura estereotipatuak eragiten dituela. Bait, neskek interesa erakutsi arren gorputz-jarduerarekiko, emakumea orokorrean, ez delako identifikatzen kirolaren irudi lehiakor horrekin (Vizcarra eta Garai, 2014). Alvariñas-Villaverde eta Pazos-González (2018) lanak dioenez, neskek eduki anitzagoak landu nahiko lituzkete klaseetan eta ikuspegi ez hain lehiakorretik egindakoak, horretarako metodologia kooperatiboak erabiliz.

Beste alde batetik, genero estereotipoek kirolarekiko motibazioan eragiten dute, baita ikasleek generoaren arabera duten mugimendu gaitasunaren pertzepzioan. Hori horrela izanik, Gorputz Hezkuntzako eskoletan nesken parte hartze baxua pertzepzio horren eragina dela ondorioztatu daiteke (Alemany *et al.*, 2019). Serraren *et al* (2022) aburuz, neskek gorputz hezkuntzarekiko interesa ona izan arren mutilena baino baxuagoa da, neskek mutilak baino trebetasun gutxiagoa dutenaren pertzepzioa dutelako. Azken finean, pertsonak jarduera batekiko interesa azaltzen dute hau egiteko ahalmena dutela ikusten dutenean eta inplikazioa beraien garapenerako positiboa dela sentitzen dutenean (Alemany *et al.*, 2019). Baina, estereotipatua dagoen kirol bat ikasterako orduan, esaterako, saskibaloia edo futbola, neskek konfiantza baxuagoa erakutsi ohi dute. Aitzitik, zaila izango da pertsona bat zeregin batekiko interesatzea, lan hori egiteko gai ez dela aurreikusten duenean (Serra *et al.*, 2022).

Egoera hau ikusita beharrezkoa izango da genero berdintasuna oinarri duen irakasleen etengabeko formakuntza eta sentsibilizazioa eskeintzea,aldi berean, gai honekiko hausnarketa kritikoa sustatuko duena; irakasleak egoeraz jabetu eta norberak bere jarrerak aztertu ahal izateko (Ramirez, 2021). Hauei esker, irakasleek genero ikuspegia izango duen irakaskuntza bat eskeintzeko gaitasuna eskuratuko dute, eta genero estereotipoekin hausteko helburuz, material didaktikoak eta baliabide metodologiko eta antolatzaile berritzaileak diseinatzeko eta erabiltzeko gai izango dira (Lleixa *et al.*, 2020).

3.3.2. Gorputz Hezkuntzako irakasgaian ematen diren harremanak

Gorputz Hezkuntzaren helburuetako bat ikasleen garapen soziala eta afektiboa lortzea da, eta irakasgai hau batez ere bizipenen eremu gisa planteatzen da, ondorioz pertsonen arteko elkarreragina eta harremanak etengabeak dira (Monzonis eta Capllonch, 2015). Horregatik, ikasleen eta irakasleen arteko harremanetan genero estereotipoen presentzia aztertzen duten ikerketetan arreta jartzea garrantzitsua da. Lleixaren *et al* (2020) ikerketaren arabera, curriculum ezkutuak genero estereotipoen erreprodukzioan ere eragiten du. Irakaslearen begiradek, hitzek, isiltasunak, komentarioek... oso mezu indartsuak igorri ahal dizkietelako ikasleei.

Gauzak horrela, Gorputz Hezkuntzako irakasleek ikasleekiko dituzten jarrerak, komunikatzeko moduak eta itxaropenak generoaren arabera desberdinak direla erakusten duten ikerketak aurkitu daitezke. Naberanen (2017) ustez, irakasleak mutilei gehiago zuzentzen dira eta beraiekin interakzioa edukitzeko ohitura handiago dute. Gainera, Arenasen *et al* (2022) hitzetan, generoaren arabera irakasleek ikasleei emandako feedback-ak ezberdinak dira. Ohikoagoa da neskek alderdi teknikoei edo egindako ahaleginari buruzko feedback-a jasotzea, eta mutilek, berriz, errendimendu onagatik eta batzuetan duten portaera desagokiagatik jasotzea. Dena den, Sanzen (2016) ikerketa

batzuek erakusten dute, irakasleen artean ez dagoela alderik ikasleekin dituzten harremanetan, ezta arloan espero dituzten emaitzen mailan. Desberdintasun horiek ikasle bakoitzak dituen ezaugarrien eta haien bizipenen araberakoak dira eta ez generoaren araberakoak.

Ikasleen arteko harremanak aztertzen dituzten ikerketan arreta jarriz, Salazarren (2020) ikuspuntutik hauetan ere irakasleak zuzenean eragina du, eta taldeak antolatzeke moduak genero estereotipoengandik eraginda egon daitezke. Serrak *et al* (2022) argudiatzen du, saioan zehar taldeak era librean sortzeko aukera emateak, non ikasleek jarduerak egiteko beraien taldearen osaera nolakoa izango den aukeratzen duten, agerian uzten ditu genero eredu eta harreman tradizionalak; hau da, alde batetik nesken arteko harremana eta bestetik mutilena. Aldi berean, Naberanek (2017) ohartarazten du, ikasleek taldeen osaera aukeratzen dutenean diskriminazio egoerak ematen direla, gaitasun motor gutxiago duten ikaskideak azkenak aukeratzen direlako. Halaber, Alvariñas-Villaverde eta Pazos-Gonzálezek (2019) defendatzen dute, binaka edo talde mistoetan lan egiteak mutilen eta nesken arteko lankidetzak eta komunikazioa hobetzen duela, ikasgelan giro hobea sustatuz.

Bestalde, hainbat ikerketan ikusi da nola neskei eta mutilei izateko edo jarduteko modu desberdinak esleitzeak eragina duten ikasleek beraien harremanetan erakusten dituzten jarreretan (Arenas *et al.*, 2020). Honetan sakoduz, Ramirezen (2021) hitzetan, tradizionalki gizartean emakumeei esleitzen zaizkien ezaugarri estereotipatuak hauek dira: lasaiak, sentiberak eta emozionalak; eta gizonei, berriz, indartsuak, liderrak eta independenteak bezalako nolakotasunak. Horiek horrela, Salazar eta Looren (2021) ikerketa kontuan hartuz, Gorputz Hezkuntzako saioetan sentimenduei eta afektibitateari dagokienez, gehienetan emakumeak gizonak baino sentikorrak eta adeitsuagoak azaltzen dira. Gizonak, oro har, izaera indartsuak, seguruak eta berekoiak erakusten dituztelako.

Ikasleak hazi ahala, sozializazio prozesuen bidez bereganatu dituzten genero estereotipoak finkatuz doaz. Ondorioz, genero arrazoiengatik jokabide negatiboak maizago agertzen hasten dira mutiletan (Arenas *et al.*, 2020). Hídalgo eta Almonacik (2014) beraien ikerketan, mutilek irakasgaien jarrera oldarkorak eta arduragabeak dituztela baieztatzen dute. Azkenean, kirolekiko parte hartze handia erakusten duten heinean, protagonismoa eta garaipena bilatzen dute, eta gizonek askotan ez dituzte arauak errespetatzen. Aldiz, Morfante eta Úbeda-Colomer (2019) hitzetan, neskek arauak aintzat hartu eta irakaslearen autoritatea errespetatzen dute, eta gainera ikaskideei arauak errespetatzen eskatzen diete. Mutilek baino jarrera ez seguruagoak dituzten arren, besteekin askoz ere

lagunkoiagoak dira, eta horregatik bidezkotzat eta egokitzen jotzen dutena defendatzera jotzen dute (Salazar eta Loor, 2019).

3.3.3. Ikasleen jarrera kirolekiko eta jarduera fisikoarekiko

Ikasleen artean jokabide eta jarrera estereotipatuak ematen dira txikitatik, eta oraindik irakasleek eta ikasleek asoziazio estereotipatuak izaten jarraitzen dituzte, ondorioz, genero jakin batekin lotzen dituzte zenbait kirol eta curriculumeko eduki (Arenas *et al.*, 2019). Beraz, ikasleek Gorputz Hezkuntzan dituzten jarrerak ulertzeko, mutilentzat edo neskentzat egokiagoak diren kirol edo jarduera fisikoak sailkatzeko orduan, ikasleek dituzten pertzepzioen inguruko ikerketak aztertu behar dira.

Sanzen (2016) lanaren arabera, gizarteko kirol asko bai mutilentzat bai neskentzat egokitzen hartzen dira eta biek praktikatzeko dituzte, tenisaren, igeriketaren edo voleibolaren kasua da, adibidez. Dena den, Alemanyk *et al* (2019) ondorioztatu du praktikan zenbait kirol gehienbat emakumeek egiten dituztela, eta beste batzuk gizonen. Genero estereotipoen ondorioz gizarte oztopoak sortzen dira jarduera fisikoaren eremuan, izan ere, emakumeak eta gizonak kirol modalitate jakin batzuetatik kanpo geratzen dira hauek duten genero karga handiagatik (Serra *et al.*, 2020). Gainera, Alemanyk *et al* (2019) hezkuntza esparruan adinarekin aurrera egin ahala genero estereotipo eta oztopo horiek areagotu egiten direla adierazten du.

Gauzak horrela, Rodriguezen (2016) lanean ikus daitekenez, nesken eta mutilen gustuak eta lehentasunak desberdinak dira jarduera fisikoari buruz duten pertzepzioaren arabera, gure gizartean urteetan zehar zenbait jarduera edo kirol genero jakin batekin lotu izan direlako. Naberaren (2017) arabera, emakumeak gehiago hurbiltzen dira estetikatutasuna, erritmoa edo koordinazioarekin zerikusia duten jardueretara; aldiz, mutilek agresibitatea, kontaktua, nekea, lehiakortasuna... erakusten dituzten kirolak edo jarduerak praktikatzeko atsegin dute. Ondorioz, "neskentzako" kirolak kontsideratu izan dira, esaterako, balleta, dantza espezialitate desberdinak, igeriketa sinkronizatua, patinaje artistikoa eta gimnasia erritmikoa. Ordea, sozialki genero maskulinoari lotutako kirolak dira futbola, errugbia, karatea, saskibaloia edota txirrindularitza (Arencibia, 2021).

Alabaina, Alemanyk *et al* (2019) aldaketaz hitz egiten du, mutilen kiroltzat hartzen den futbola adibidez, neskek gehien egiten duten jardueren artean bosgarrena delako, beraz, nesken eta mutilen kirol gisa ere onartzeko joera dago. Baina portaera hau ez da berdina mutilen kasuan, Alvariñas-Villaverde eta Pazos-Gonzálezek (2018) baieztatzen dute mutilak ez direla dantzaren esparrura hurbiltzen, ez dute praktikatzeko, eta, are gehiago, batzuk femeninotzat jotzen diren edukien aurrean hauek saihesteko portaerak adierazten

dituzte. Adibidez, gimnasia erritmikoaren kasua da; dantza, mugimenduak eta gorputz adierazkortasuna konbinatzen dituen kirol hau jatorritik emakumeentzat bakarrik sortu zen (Rodriguez, 2016).

Bistan da Alvariñas-Villaverde eta Pazos-Gonzálezek (2018) ondorioztutakoa, hau da, neskek tradizioz gizonei egozten zitzaizkien kirol edo jarduera fisiko asko praktikatzen hasi direla, neutrotzat antzematen dituztelako; baina mutilen kasuan alderantzizko joera ez da intentsitate berarekin ematen “neskentzako” kontsideratuak izan diren kirolekin. Arenasen *et al* (2019) ustetan, frogatu da mutilak direla generoari dagokionez estigma gehien aurkezten dituztenak, eta kasu batzuetan beraien maskulinitasuna galtzeko beldur dira. Baina, kontuan hartu behar da Alemanyk *et al* (2019) jarrera aldaketa hori berresten duela, eskolan neskek eta mutilek geroz eta zaletasun gehiago konpartitzen dituztelako, hainbat jarduera fisiko elkarrekin praktikatzeko aukera edukiz.

Beste alde batetik, eta aurrekoa kontuan hartuz, Alvariñas-Villaverde eta Pazos-Gonzálezek (2018) bere lanean esandakoa azpimarratu behar da, alegia, ikasleek trebetasun pertzepzio eta segurtasun handiagoa ematen dioten jarduerak aukeratzen dituztela. Horregatik, gizonek zein emakumeek kontrako generoari lotutako jarduera fisikoak edo kirolak Gorputz Hezkuntzako klaseetan egiterako orduan, ez dira seguru sentitzen eta kaskarrago antzematen dira. Honen aurrean, Serraren *et al* (2020) ikuspuntutik, beharrezkoa da parte hartze aktiboa sustatzeko estrategiak ezartzea, eta, bereziki, ikaskuntza positiboa izateko giro bat sortzea. Horrela, ikasleek jarduera hauei aurre egiteko hasierako ezgaitasuna, beldurra eta lotsa galduko dute.

Amaitzeko, garrantzitsua da Salazar eta Loorrek (2019) bere lanean aipatutakoa, hau da, irakasgaiaren garapenean neskek mutilek baino jarrera ezseguruagoa dituztela, ez direla haiek bezain ausartak, eta mutilek jardueren protagonismoa izateko joera daukatela. Hau ulertzeko, Sanzek (2016) bere lanean esaten du mutilek indarra, abiadura, lidergoa... bezalako ezaugarriak erabiltzeko joera dutela, ikaskideen aurrean trebetasun handiagoarekin agertzeko, eta besteei irabazi eta garaitzeko asmoa adierazteko; gainera, oldarkortasunaren bidez erakusten dute frustrazioa.

4.HELBURUAK

Helburu orokorra:

Gorputz Hezkuntzako irakasle talde baten pertzepzioaren bitartez, Gorputz Hezkuntzako irakasgaietan dauden genero estereotipoak zeintzuk diren ezagutzea.

Helburu zehatzak:

1. Gorputz Hezkuntzako irakasleen pentsamenduetan, portaeretan eta irakaskuntza prozesuan genero estereotipoen presentzia dagoen aztertzea.
2. Irakasleak, genero estereotipoek ikasleen arteko harremanei eta haien sentimenduei eragiten dieten ikusten duen jakitea.
3. Genero estereotipoek neskek zein mutilek duten parte-hartzean eta ikasgaiarekiko duten interesean eragina duten ezagutzea.
4. Kirol batzuk “neskentzako” eta beste batzuk “mutilentzako” direnaren pentsamenduak eskoletan indarrean jarraitzen duen jakitea.
5. Kirol munduan neskei eta mutilei ezaugarri eta jarrera zehatz batzuk esleitzen zaizkien ezagutzea.

5.METODOA

5.1. Diseinua

Lan honen helburuak aintzat hartuta, Gorputz Hezkuntzako irakasleen pertzepzioak aztertzeko metodologia kualitatiboa erabili dut. Horretarako, datu kualitatiboak oinarri izanda, azken hamarkadetan gehien erabili den ikerketa metodologietako bat erabili dut, hain zuzen ere, “Grounded Theory”-a. Teoria hau erabili izanaren arrazoia da, egokia dela giza portaerarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketak egiteko (Cuñat, 2007). Bere helburua aztertzen diren jokabideei buruzko informazio baliotsua eman eta hauek azaldu ahal izateko interpretazioak sortzea da; kasu honetan, irakasleen eta ikasleen jokabideei buruzkoak (Paramo, 2015).

“Grounded Theory”-ak, aztertutako fenomenoarekin lotura estua duten gizarte subjektuek ematen duten informaziotik abiatuta, teoria bat sortzen du; eta teoria hau ikerketan aztertutako fenomeno edo prozesu soziala azaltzen saiatzen da (Gaete, 2014). Horregatik, metodologia hau egokia da pertsonak beraien errealitatea nola interpretatzen duten jakin nahi dugunerako (Paramo, 2015). Glaser eta Strauss, “Grounded Theory”-aren sortzaileak izan ziren 1967. urtean. Hernandezek (2014) honela definitzen du:

Es una metodología de análisis unida a la recogida de datos, que utiliza un conjunto de métodos, sistemáticamente aplicados, para generar una teoría inductiva sobre un área sustantiva. El producto de investigación final constituye una formulación teórica, o un conjunto integrado de hipótesis conceptuales, sobre el área sustantiva que es objeto de estudio (192.or).

Bestalde, metodologia honek aukera ematen digu teoriak, kontzeptuak eta hipotesiak eraikitzeko datuetatik zuzenean abiatuta, eta ez alde zuzenetik ezarritako esparru

teorikoetatik abiatuta (Alarcon *et al.*, 2017). Beraz, ez dago muga teorikorik, hau da, atal teorikoa etengabe aldatzen ari da jasotzen dugun informazioaren arabera, horregatik, sortutako teoria induktiboki garatzen da datu multzo batetik abiatuta (Cuñat, 2007).

5.2. Parte-hartzaileak

Analisirako informazioa biltzeko beherago aipatzen diren irizpideak betetzen zituzten irakasleen bila ibili nintzen. Azkenean, ikerketa egiteko behar nuen behar bezain beste informazio biltzeko, sei irakasleei egin nizkien elkarrizketak. Hortaz, analisi honen laginaren tamaina sei irakaslekoa da; horietatik hiru neskak dira eta hiru mutilak. Elkarrizketetan parte hartu zuten irakasleak hautatzeko, hasieratik zenbait irizpide definitu ziren, honako hauek zehazki:

1. Lehen Hezkuntzan Gorputz Hezkuntzako klaseak ematen dituzten irakasleak izatea, eskola publikoetan zein itunduetan lan egiten dutenak.
2. Bi urtez gutxienez lan egin izana Gorputz Hezkuntzako irakasle gisa.
3. Elkarrizketatuko irakasleen artean genero berdintasuna egotea, hau da, irakasleak neskek zein mutilak izatea.
4. Audio eta inguruko herrietako eskoletan irakasleak izatea.

Beheko taulan laginaren edota elkarrizketutako irakasleen zenbait datu adierazgarri agertzen dira (ikusi Taula 1).

Taula 1. Parte-hartzaileen datuak

	SEXUA	FORMAKUNTZA	ESPERIENTZIA URTEAK GORPUTZ HEZKUNTZAN	FORMAKUNTZA HEZKIDETZAN
1. IRAKASLEA	Neska	Gorputz Hezkuntzako magisteritzako gradua.	35 urte, eta oraingo eskolan 22 urte daramatza.	BAI. Eskolan hezkidetzako proiektuko arduraduna da. Berritzeguneko formakuntzak, eta Madrilén hitzaldiak.
2. IRAKASLEA	Mutila	Garai hartako Magisteritza Gizarte-Letretan. Heziketa Fisikoko ikastaroa.	25 urte	EZ

3. IRAKASLEA	Neska	Gradu bikoitza: Lehen Hezkuntzako gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zientzietako Gradua. CAP-a.	3 urte. Gaur egungo eskola berdinean.	EZ. Graduan zeharka landutakoa bakarrik.
4. IRAKASLEA	Mutila	Gorputz Hezkuntzako magisteritzako Gradua. Kulturarteko Hezkuntza eta Gizarte Bitartekaritza graduondoa.	16 urte, eta oraingo eskolan 14 urte daramatza.	EZ
5. IRAKASLEA	Neska	TAFAD: Gorputz eta Kirol Jardueren animazioko goi mailako Teknikari Zikloa. Lehen Hezkuntzako gradua, Gorputz Hezkuntzako espezialitatearekin. Haur Hezkuntzako gradua.	3 urte.	BAI. Bere kabuz udaletxe desberdinek antolatzen dituzten ikastaroak egin ditu.
6. IRAKASLEA	Mutila	Lehen Hezkuntzako gradua, Gorputz Hezkuntzako espezialitatearekin.	23 urte. Bigarren Hezkuntzan lan egin zuen urte gutxi batzuk.	EZ

Lagin hau hautatu izanaren arrazoia nire bizilekutik gertu dauden eskoletan dagoen errealitatea ezagutzeko jakin-mina izan da. Ikastetxe guztiak Audio eta inguruko herrietan kokatuta daude; horien artean, Lehen Hezkuntzako ikasketak burutu nituen eskola ere aurkitzen da, modu honetan, garai hartan nire Gorputz Hezkuntzako irakaslea izan zenari elkarrizketa egin nion.

5.3. Tresnak

Aipatu den bezala, informazioa biltzeko teknika gisa elkarrizketak erabili nituen, analisi kualitatiboetan gehien erabiltzen den metodoa (Cuñat, 2007). Horretarako bederatzi galdera irekien gidoi erdi-egituratu bat gauzatu nuen. Elkarrizketen bidez, Gorputz Hezkuntzako irakasleek genero estereotipoen eta hauek klasean duten eraginaren inguruan dituzten pertzepzioak aztertzea posible izan da. Tresna hau erabiliz elkarrizketatuen esperientzien azalpen aberatsagoa, anitzagoa eta zehatzagoa sortzen da (Cuñat, 2007). Gainera, galdera irekiek irakasleen hitzetan eta azalpenetan hasieran kontuan hartu ez nituen gaiak agertzea ahalbidetu zuten.

Elkarrizketako galderak formulatzeko aurretik zehaztutako lanaren helburuak oinarri hartu nituen. Modu honetan, helburu zehaztatetik abiatuta beheko taula sortu nuen (ikusi Taula 2). Honek aztertutako fenomeno sozialean garrantzitsuak diren hiru analisi-dimentsio biltzen ditu, baita hauen harira formulatutako bederatzi galderak. Bestalde, laginaren datu esanguratsu batzuk biltzeko zenbait galdera itxi aurkitu daitezke elkarrizketaren hasieran.

Taula 2. Analisi-dimentsioak

DIMENTSIOA	GALDERAK
IRAKASLEA	Nola prestatzen dituzu Gorputz Hezkuntzako klaseak? Zein metodologia esango zenuke erabiltzen duzula?
	Bai neskek bai mutilek prestatzen dituzun klaseekiko errespetua eta interesa erakusten dute? Eta zuk ikasle guztiekin, neskak zein mutilekin, harreman berdina duzula uste duzu?
	Nolakoa da nesken eta mutilen jarrera Gorputz Hezkuntzako klaseetan?
IKASLEAK	Nolakoak dira ikasleen arteko harremanak Gorputz Hezkuntzako klaseetan?
	Ikasle guztiek pareko parte hartzea dute klaseetan? eta interes berdina erakusten dute irakasgaiarekiko?
	Ikasgelan aurretik landu edo praktikatu ez diren jarduera fisikoak edo kirolak burutzean, nolakoa da neskek erakusten duten jarrera? eta mutilena?
KIROLAK	Badakizu zein motatako kirolak praktikatzen dituzte zure ikasleek, eskolaz kanpoko ekintzetan adibidez? Horrek Gorputz Hezkuntzako klaseetan eragina duela behatu izan duzu?
	Zein motatako kirolak praktikatzen dituzu klasean? Nolakoa da ikasleen erantzuna kirolaren arabera?
	Gorputz Hezkuntzako klaseetan zer nahiago izaten dute ikasleek praktikatzea, jarduera fisiko indibidualak edo taldekoak? Zein izan daiteke horren arrazoia?

5.4. Prozedura

Elkarrizketak burutzeko jarraitutako prozedurari dagokionez, irakasleekin modu desberdinetan jarri nintzen kontaktuan. Kasu batzuetan ikastetxetara bertaratu nintzen eta han Gorputz Hezkuntzako irakaslearengatik galdetzen nuen. Beste kasu batzuetan, eskola horietan pertsona ezagunak nituen hauekin harremanetan jarri nintzen, eta beraien bitartez lortu nituen Gorputz Hezkuntzako irakasleekin elkarrizketak.

Irakasleek erabakitzen zuten noiz eta non egin elkarrizketak. Guztiak beraien lan egiten zuten ikastetxean bertan egin ziren, kasu batzuetan irakasle gelan edota beraien ikasgelan, eta baita eskolako gimnasioan ere. Elkarrizketa hasi baino lehen, guztiei parte

hartzea anonimoa zela ezagutzarazi nien, eta ondoren hauek grabatzeko baimena eskatu nien. Beraz, aurrez aurreko elkarrizketak izan ziren eta banan-banan egindakoak; nire mugikor propioa erabiliz audio formatuan grabatu ziren eta ondoren transkribatu egin nituen, elkarrizketatuen diskurtsoarekin bat etorriz. Hauen iraupenari buruz hitz egiten badugu, guztiak hogeita hamar eta berrogeita bost minutu bitarteko elkarrizketak izan ziren.

Behin analisia egiteko behar nuen bezain beste informazio bildu eta gero, egindako elkarrizketen bidez jasotako datuak aztertzen hasi nintzen, Atlas.ti software informatikoa erabiliz. Beraz, nahiz eta lehenengo datuak bildu nituenean hauen analisiarekin hasi nintzen, azken analisia sei elkarrizketetan bildutako datu guztiak kontuan hartuz egiten nuen.

5.5. Analisia

Gorago aipatu den moduan, lan honetan erabilitako metodologia “Grounded Theory”-a da. Ikerketaren abiapuntua datu-bilketa izan da, bildutako informazioak, kasu honetan elkarrizketetatik lortutakoak, sorrarazten dituelako arestian aipatutako fenomeno sozialaren teoria eta interpretazioak. Teoria honek adierazten du, datuen kodetze-prozedura dela datuen azterketa eta teoriaren sorkuntza lotzeko funtsezko estrategia (Monge, 2015).

Kodetze-prozesu horretan, teoria honek eskatzen duena da aurrez egindako elkarrizketen transkripzioetan aurki daitezkeen datuak prozesatzea, eta hauen etengabeko konparazio bat egitea (Cuñat, 2007). Datu bilketarekin batera, jadanik lortutako datuak modu irekian kodetzen hasi behar dira, datuen esanahiak eta erlazioak etengabe kontrastatuz (Monge, 2015). Modu honetan, kodigo substantiboak nabarmendu eta ondoren lehenengo kategoriak sortzen hasten dira (Cuñat, 2007). Hortaz, datuen bilketa eginez eta konparazio konstantearen bidez, hasierako kode substantiboak ondorengo kodeekin konparatzen dira, eta kodeen dentsitate esanguratsua handitu egiten da hasierako kategoriak izatera iritsi arte (Monge, 2015). Hala, sortzen diren kategorien arabera kodetzen dira datuak, eta ahalik eta kategoria gehienetan kodetzen dira; eta posiblea izanez gero, kategoria berriak aurretik sortu direnetara egokituz. Ondoren, garrantzitsuak ez direnak atzean utzi ahala, interesgarriak diren kategoriak hautatu eta hauek azpikategoriak sortzen dira (Hernández, 2014).

Gauzak horrela, kodifikazio teorikoan konparazio konstantea erabiltzen jarraitzen denez, oraingoan ere kategorien etengabeko konparazioarekin kategoria abstraktuagoak sortzen dira, hauek kategoria zentralak izatera helduz. (Cuñat, 2007). Beraz, kodifikazio prozesu honen amaiera datuak eta kategoria zentralak saturatuta daudenean ematen da. Beste hitz batzuetan esanda, datuak bildu eta analizatu ahala ikusten denean ez dela aztertutako fenomenoaren ebidentzia edo datu berririk sortzen (Cuñat, 2007). Honen ostean, identifikatutako kategoria zentraletatik abiatuta eta hauek oinarri hartuta, aztertutako

fenomeno sozialen azalpen bat ematen duten interpretazio teorikoen multzoa idazten da (Paramo, 2015).

Beraz, elkarrizketetan lortutako datuen kodetze-prozesua egitean, gai berari buruz hitz egiten zuten testu zatiak kodetzeko helburuz, hasieran 65 kodigo inguru lortu nituen. Kodigo substantibo bakoitzaren datuak eta informazioa irakurri eta gero, lehenengo kategoriak sortu nituen, eta kategorien arabera kodetu nituen datuak. Ondoren, lanean ezarritako helburuekin erlazionatuta dauden kodigoak bereziki kontuan hartuz, 20 kodigo inguru, sortutako kategoria desberdinak haien artean konparatu nituen. Kategorien etengabeko konparazioarekin, hauek abstraktuagoak bihurtu eta gero kategoria zentralak lortu nituen. Ondorioz, amaieran hiru kategoria zentral sortu nituen: “Metodologia”, “Harremanak” eta “Ikasleen jarrera kirolekiko eta jarduera fisikoarekiko”.

6. EMAITZAK

Atal honetan, aipatu berri ditugun kategoria zentral bakoitza zatika landuko da. Hiru kategoria hauetan une oro genero estereotipoen presentzia agerikoa izango da. Azken finean, emaitzetan behatu daiteke genero estereotipoak metodologian, harremanetan eta ikasleen jarreretan daudela; Gorputz Hezkuntzako saioen egunerokotasunean modu transbertsal batean ematen delako hauen eragina.

6.1. Metodologia

Lehenengo kategoria honetan, hasteko, Gorputz Hezkuntzako irakasleek irakaskuntza prozesua antolatzeko erabilitako unitate didaktikoen inguruko informazioa aurkeztuko da. Ondoren, metodologiak eta ikasleen parte-hartzeak duen erlazioan arreta jarriko dugu; eta honekin batera irakasleek honen harira hartutako neurri metodologiko desberdinak ezagutuko dira. Horretaz gain, irakasgaien jardueren garapenean erabilitako irakaskuntza estrategien inguruan ere hitz egingo da.

Gorputz Hezkuntzako ikasgaietan erabilitako metodologiaren inguruko hainbat aspektu eta informazio desberdin bildu da elkarrizketetan. Gai honen inguruan galdetzean irakasle guztiek unitate didaktikoen inguruan hitz egin zuten, esanez hauetan oinarrituta eduki desberdinen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua planifikatzen dutela. Gauzak horrela, irakasleek zikloaren arabera lantzen dituzten edukiak desberdinak dira; lehenengoan zein bigarrean irakasle gehienek oso antzeko metodologia erabiltzen dute.

“Lehenengo hartzen dugu zer landu behar dugun ziklo bakoitzean, hartzen dugu gero mailaka, eta hortik ba banatzen ditugu unitate didaktikoak” (3.elkarrizketa)

“Txikiekin egiten diren gauzak dira: gorputza ezagutu, gorputza mugitu, lateralitatea, oreka eta horrelako gauzak jolasaren bidez” (2.elkarrizketa)

Hirugarren zikloan, aldiz, edukien lanketa irakasleek modu desberdinetan egiten dute. Alde batetik, ikusi daiteke batzuk kirola eduki nagusi bezala jartzen dutela. Eta nahiz eta, adibidez, gorputz adierazpenarekin erlazionatutako unitateak ere egiten dituzten, gehienbat gure gizartean ohikoak diren kirolean oinarritutako Gorputz Hezkuntza bultzatzen dute. Berriz, beste irakasle batzuk hirugarren zikloan, kirolen lanketan eskuratzen diren gaitasun sozialak eta ahalmen fisiko eta motorrak, beste motatako planteamenduekin lantzen dituzte. Hauek orientazioa, acrosport eta osasun mentalari buruzko unitateak prestatzen dituzte; edota bigarren irakasleak planteatutako jarduera motak.

“Hirugarren zikloan egiten dut eskupilota, herri kirolak, saskibaloia, artzikirolak, atletismo, eskubaloia, hockey... gehienak dira jolas moldatuak edo kirol hastapeneko jarduerak” (6.elkarrizketa)

“Bostgarren mailan egon garela koordinazioak lantzen, talde bati eman dizkiot sokak, beste bati konoak, beste batzuei banku bat eta besteei antifazak. Talde bakoitzak material bat zeukan eta beraiek sortu behar zuten jolas bat, guk orain arte erabiltzen genituenak ez zuen balio. Orduan pertsona bakoitzak ideia bat proposatu behar zuen, eta gero guztien ideiak kontutan hartuz jolas bat sortu behar zuten” (4.elkarrizketa)

Unitate didaktikoak prestatzerako orduan irakasleentzako ikasleen adinak, hau da, zikloak kontuan hartzea ezinbestekoa da. Hala ere, elkarrizketa askotan ikusi daiteke nola ikasleen adinaren arabera hauek klasean daukaten jarrera desberdina dela, gainera, desberdintasun hori generoaren arabera dela baieztatu zuten zenbait irakaslek:

“Lehenengo eta hirugarren zikloan ez da nabaritzen, bai neskek bai mutilak aktiboki hartzen dute parte. Baina bai seigarren mailan nabaritzen dela gehiago. Nesken kasuan nabaritzen da motibazioa jaisten dela, nahiago dutela egotea, ez orokorrean, baina batzuk nahiago dutela egotea hitz egiten eta parte hartzea bai jeisten dela” (3.elkarrizketa)

Egia da ere, irakasle batek azaldu zuela bere eskolan ziklo guztietan nesken eta mutilen parte hartzea berdina dela. Horren arrazoia bere ustez da, eskola herri txiki batean kokatuta dagoela eta neskek zein mutilek eskolatik kanpo gutxienez kirol bat praktikatzen dutela, oso jarrera aktiboa edukiz. Ordea, lan egin duen eskola guztietan horrela ez dela izan esan zuen:

“Eskola honetan generoaren aldetik ez dut desberdintasun handirik ikusten, neskek dira makina batzuk. Orduan hemen bai ikusten dut nahiko parekatuta parte-hartzea, baina aurreko eskoletan bai, bai ikusten zen askoz gehiago.” (5. elkarrizketa)

Gauzak horrela, irakasleek egoera honen aurrean dituzten interpretazioak edo iritziak desberdinak dira. Batzuen ustez hau normalean mutilei kirolak gehiago gustatzen zaizkielako eta irakasgaien hauekiko interes gehiago erakusten dutelako ematen da. Bestetik, irakasle batzuk trebetasun edo gaitasun desberdinei egiten diete erreferentzia.

“Normalean mutilei kirolak ematen badizkiezu beraiei kirolak neskei baino gehiago gustatu egiten zaizkie. Eta trebetasunetan sartzen baldin bazara normalean mutilek interes gehiago erakusten dute” (4. elkarrizketa)

“Hori ez dakit gizartearen eragina izango den edo, baina ikusten da. Mutilek ez dakit erraztasun gehiago daukatelako edo ez dakit zergatik, baina futbola edo kontaktuko jolasak edo kirolak askoz hobeto. Nahiago dute, bueno ez da nahiago dutela moldatzen dira hobeto. Neskei kontaktuko jolasak, kirolak edo horrela kostatzen zaizkie gehiago” (2.elkarrizketa)

Kiroletan nesken eta mutilen artean aipatzen zuten desberdintasun horren aurrean, bildutako emaitzetan behatu daiteke irakasleek jokaera desberdinak hartzen dituztela; hirugarren zikloan baliabide metodologiko desberdinak erabiltzen dituztelako klasean. Alde batetik, hiru irakasle kirolak lantzearen aldekoak diren arren, artzikirolak deituriko kirol alternatibo bat lantzen dute. Ere bai, haietako batek, martxoaren 8a hurbil dagoenean klasean ikasleekin batera lanketa bat egiten du, emakumeak eta kirol mundua lotzeko helburuarekin.

“Artzikirolak, Artziniegako tipo bat sortutako kirola da, benetan oso interesgarria, eta bere oinarria da berdintasuna lortzea kirolean. Talde mistoak erabiltzen dira eta jolasten da oinarekin zein eskuarekin, orduan horrek errazten du berdintasuna” (1.elkarrizketa)

“Martxoaren 8a hurbil dagoenean, emakumeen kirolarien zerrenda bat daukat eta beroketa egin baino lehen edo irakurtzen dizkiet; ea nola izan den beraien bizitza, noraino heldu diren kirol munduan, nolako zailtasunak izan dituzten... eta biografiak irakurtzen dizkiet” (6. elkarrizketa)

Beste irakasle batek kirolak lantzen dituenean, klasera kirol hori praktikatzen duen pertsona bat eramaten saiatzen da, berak beste erraztasun eta bizipen batzuetatik azaltzen duelako; gainera, beti emakumeak izan daitezen saiatzen da. Alabaina, berak honako hau esan zuen:

“Horretan bai kostatzen zaidala neskak ekartzea. Nik deitu izan dudanean beti esan diet: bidali neskaren bat bebai. Baina beti gauza bat edo beste bategatik ezin zuten. Egin dut hockeyarekin, rugbyarekin, eta gero kirol egokituak ere, baina etorri direnak beti izan dira gizonezkoak. Esan nahi dut suma y sigue, eta egia da bakarrik lortu dudala eskubaloiarekin” (1. elkarrizketa)

Elkarrizketetan kirolen inguruan hitz egitean, modu batean edo bestean, irakasle guztiek futbolari egiten zioten erreferentzia. Gorputz Hezkuntzan kirol hau lantzearen inguruko iritziak desberdinak dira; irakasle batzuk ez dira kirol hau lantzearen aldekoak. Haatik, beste batzuk nahiz eta futbola ez lantzea erabaki duten beti, azken urteetan beraien iritzia aldatu dute.

“Futbola ez dut egiten, beti eskatzen dute asko eta badaude batzuk egiten dutela, baina nik futbola ez, nahiago dut denbora hori hain ezaguna ez den beste kirol batean erabiltzea” (6.elkarrizketa)

“Ni beti izan naiz futbola ez lantzearen aldekoa, eta aurten eman diot buelta bat eta hogeitapiku urte eta gero irakaskuntzan, esan dut landuko dut! Gainera aprobetxatu dut futbola praktikatzen

duzen horiek irakasteko besteei eta orduan da elkarlaguntza. Jaitsi behar duzu zure maila, zure pazientzia irakasteko nola egin. Ez dakit, buelta bat ematea ere ondo dago” (1.elkarrizketa)

Irakasle batzuentzako Gorputz Hezkuntza irakasgaien garrantzitsuena ez da kirolariak formatzea edota ikasleak kirolariak izatera heltzea, baizik eta pertsonak hezteak:

“Nik beti esaten dut heziketa fisiko klaseak ez dira kirol klaseak, ez dira kirol entrenamenduak, ez da kirol errendimenduko eskola bat” (4. elkarrizketa)

Horregatik, lehen aipatu dudan bezala irakasle batzuk hirugarren zikloan irakasgai hau kirolen lanketan bakarrik ez zentratzen saitzen dira. Horretarako, kirolek haratago doan ariketa fisikoa eta bestelako gaitasun batzuk, esaterako, talde lana, errespetua, komunikazioa...konbinatzen eta baloratzen dituzten unitateak prestatzen dituzte. Adibidez, euskal jolasekin, orientazioarekin, akrobaziekin eta zirkoarekin erlazionatutako unitateak.

“Gaitasun fisikoa bakarrik lantzea ez da garrantzitsuena, pertsonak hezten gaude, eta inportanteena da pertsona bakoitzak taldeari zer ekarpen ematen dion” (5.elkarrizketa)

“Orientazioarekin sorturiko unitatean ariketa fisikoa egiten dute joan behar direlako korrika alde batetik bestera, baina badaude beste gaitasun batzuk lantzen, sozialak adibidez” (4.elkarrizketa)

Atal honekin amaitzeko, unitate didaktikoetan gorago aipatu ditugun edukien aukeraketaz gain, Gorputz Hezkuntzan edukiak lantzeko egiten dituzten jardueretan erabiltzen duten metodologia aipatzea garrantzitsua da. Esate baterako, jardueren garapenean erabilitako taldekatzeak, arauak edo baliabideak. Irakasle guztiek ikasgaien metodologia kooperatiboa erabiltzen dutela adierazi zuten arren modu desberdinetan egiten dute; batzuk:

“Egiten dut unitate bat kooperazioa lantzeko, unitate oso bat. Izaten da askotan gustatzen zaielako antzarra jolasa erronka kooperatiboekin, eta nahiko ondo ateratzen da” (5.elkarrizketa)

Beste batzuk saio guztietan saiatzen dira ikaskuntza kooperatibo hori bermatzen, eta ez bakarrik unitate zehatz batean. Modu honetan, nesken eta mutilen parte hartze desberdinaren aurrean erantzun metodologiko desberdinak ematen dituzte. Irakasle batek azaldu zuen, ikasleak taldean aritu behar badira, berak alde aurretik jarduerak planteatzean parte hartze desorekatua ez egoteko jolasa kooperatiboa bihurtzen duela:

“Jolas bat egiten dugu adibidez hiru edo lau taldeetan, eta helburua bada ea nork lortzen duen pelota hori gehiagotan kolpatzea, orduan arau bat jartzen dut. Ze bestela irakasleak ez badu eskurik sartzen, talde baten bost pertsona badaude jolastuko dute hiru pertsonak eta beste guztiek ez dute jolastuko, kooperatiboa bihurtu egiten dut. Guztiok parte hartu behar dute eta guztiek behintzat aldi baten eman behar diote, bestela ez duelako balio” (4.elkarrizketa)

Aldiz, besteek behin parte hartze desorekatua eman denean hartzen dituzte neurriak. Hau da, horrelako egoeren aurrean, irakasle batzuk parte hartze baxuagoa dutenak animatzen

saiatzen dira, jolasa geldituz. Edo, beste batek, egoera hori eman dela ikusten duenean hurrengo saioetan jardueraren planteamendua aldatzen du. Ostera, irakasle batek saioetan batzuetan ikasle batzuk parte hartu gabe geratzen direla esan arren, bere metodologian egoera honi aurre egiteko ez du aldaketarik egiten, hau normaltzat hartuz:

“Egon ginen beisbol oina egiten eta ikasle bat oso trebea da. Orduan besteek botatzen zuten baloia, igual neska batek hartu edo oso trebea ez den mutil bat, eta bera berehala hasten zen “pasatu niri”. Eta gelditu nuen partida esateko guztiok jolastu behar zutela eta utzi behar ziela besteei ere parte hartzen” (6. elkarrizketa)

“Adibidez stop jolasean hasieran jartzen nuen harrapatzaile bat edo bi, baina orain jartzen ditut bost harrapatzaile. Ze harrapatzaile bakarra jartzen baldin baduzu, igual bakarrik mutilak jolasten dute eta neskak geldi daude. Bost harrapatzaile jartzen baldin badituzu ez dago inolako genero desberdintasunik, mundu guztiak harrapatzen du ikusten duen lehenengoa” (1.elkarrizketa)

“Ikusten da jolas batzuetan baztertu baztertu ez, baina geratzen direla pixkat alde batean. Eta zelai erreka egiten denean adibidez, argi eta garbi ikusten da nor mugitzen den pilota hartzeko eta nor nahiago duen alde batera egitea” (2.elkarrizketa)

6.2. Harremanak

Bigarren kategoria honetan, Gorputz Hezkuntzako klaseetan ematen diren harreman desberdinen inguruan bildutako informazioa partekatuko da. Lehenengo, ikasleen arteko harremanei eta baita irakasgai honetan jardueretan sortzen diren taldekatzeei buruzko datuak adieraziko dira; eta irakasleek hauek sortzeko erabilitako metodologiari aipamena egitea ere garrantzitsua izango da. Ondoren, klasean ikaskideekin harremantzerako momentuan adierazten dituzten jarrera edota jokaera desberdinei buruz hitz egingo da. Azkenik, irakasleek, beraien eta ikasleen arteko harremana nola ikusten duten ere erakutsiko da.

Hasteko, aipatu beharra dago irakasle guztiek esaten zutela klasean ohikoa dela neskak eta mutilak banatuta ikustea. Baina egia da, bik aipatzen zutela generoaren arabera banaketa hau nabarmenagoa dela goiko zikloetan, beheko zikloetan adiskideekin gehiago harremantzen direlako:

“Ikasleen arteko harremanetan daukagun arazorik handiena eta txikitatik sortzen dela da, mutilak mutilekin elkartu egiten direla eta neskak neskekin, eta hori apurtzea oso zaila da” (4.elkarrizketa)

“Txikiak elkartzen dira bere lagunekin ez neska edo mutila izateagatik, normalean gainera daude nahiko nahastuta” (3.elkarrizketa)

Bi generoen arteko interakzio eskasaren ondorioz, irakasle gehienek hitzetan, Gorputz Hezkuntzako jardueretan ikasleei taldekatzeak egiteko aukera ematen dietenean, nesken eta mutilen talde edo bikote bereiztuak sortzen dira.

“Genero aldetik, bai beti daude neskak eta mutilak. Uzten badiet haiei taldeak egiten, adibidez ipini bikoteka, bikote guztiak dira neskak normalean eta besteak mutilak, banatzen dira pilo bat. Soberan geratzen direnak txarrean esanda bai elkartzen dira agian neska bat eta mutil bat, baina gehienetan super banatuta daude” (5.elkarrizketa)

Elkarrizketetan bildutako informazioari esker, irakasle gehienek neurri metodologikoak hartu dituztela esan daiteke. Horretarako, ikasleek taldeak sortu behar dituztenean arduradunak jartzen dituzte; eta nesken eta mutilen harremana edo interakzioa bultzatzeko helburuz, arduradunek aukeraketetan txandaka neskak eta mutilak aukeratu behar dituzte.

“Batuetan aukeratzen ditut hiru edo lau pertsona, eta egiten dituzte haiek taldeak, eta nahastu behar dira mutilak eta neskak. Hasi behar dira, denek aukeratzen dute mutil bat, gero denek aukeratzen dute neska bat, mutila-neska-mutila-neska eta horrela banatuta geratzen dira beti. Orain badakite beraiek egiten badituzte taldeak aukeratu behar dutela: neska-mutila, daukate oso barneratuta” (2.elkarrizketa)

Dena den, batek taldeak egiteko arduradunak erabili arren, ez du banaketa hori neskak eta mutiletan egiten, justifikatuz bestela irakasleak direla hasten direnak generoaren arabera banaketa hori egiten. Honekin erlazioa du bi irakasleek ezagutarazi zidatela taldekatzeak sortzerakoan nahiko harritu zien egoera baten aurrean aurkitu zirela.

“Orduan orain gure leloa da: egin dezagun ensalada mixta!. Eta esaten dugunean ensalada mixta da, egon behar dira talde guztietan arina den bat, pazientzia daukat bat, euskaraz saiatzen den bat, besteak laguntzen dituen bat. Osea ez da bakarrik neskak eta mutilak egotea, askotan ere bereizketa horrekin hasten gara gu egiten, eta nahiko ondo errespetatzen dute” (1.elkarrizketa)

“Seigarren mailako talde baten esan zidaten: “zergatik ez dugu egiten neskak mutilen kontra?”, bi talde behar ziren. Eta galdetu nien ea zergatik egin nahi zuten hori eta erantzun zidaten “ze ez gara berdinak?”, eta geratu nintzen harrিতuta, eta esan nien: “arrazoia daukazu berdinak gara, baina hobeto da nahasten bagara” (3.elkarrizketa)

Beste alde batetik, garrantzitsua da aipatzea bi irakasleren arabera, ikasleek taldeak egiteko askatasuna dutenean, generoa alde batean utziz, neskak zein mutilak lehiakortasun horretan sartzen direla eta taldeak sortzean trebeenekin jartzen saiatzen direla. Are gehiago, beste irakasle baten iritziz trebetasun maila baxuagoa dutenak taldeak egiteko aukeraketetan azkenak uzten dituzte, eta honetan generoak ez dauka eraginik.

“Ez bakarrik ni neska naiz hartuko ditut neskak, baizik eta hartuko ditut trebeenak, lehen esan dudana lehiakortasun horretan sartzen ziren (1.elkarrizketa)

“Egia da gero taldeak aukeratzeko nabaritzen dela. Traketsa dena aukeraketan beti azkena, eta kasu horretan berdina du mutil edo neska. Umeak ez dira leloak eta nagusiak batez ere konturatzen dira berehala nor den traketsa eta nor den trebea” (2.elkarrizketa)

Gauzak horrela, kontuan hartu behar dugu beste irakasle batek aipatu zuena. Izan ere, bere klasean neskek trebetasun gutxiago daukatenaren sententzia ematen duela du, baina bere ustez beraien buruarengan konfiantza gutxiago erakusten dutelako gertatzen da:

“Neskek dira trebeak. Baina egia da ez dutela haien buruarengan konfiantza, orduan haien trebetasuna eta mutilen trebetasuna ez da ikusten berdina. Ematen du parte-hartze handiagoa daukatela mutilak aurrera doazelako guztiarekin, konfiantza gehiago daukatelako” (5.elkarrizketa)

Horren haritik, irakasleen ikuspegitik ikasleek klasean harremanetarako orduan erakusten dituzten jarrerak desberdinak dira. Hau horrela izanik, askok baieztatzen zuten desberdintasun hori generoaren arabera dela, harremanetan neskek eta mutilek ez dituztelako jarrera berdina erakusten. Gorputz Hezkuntzako klaseetan ikasleen arteko harremanetan jarrera desegokiak ohikoak diren arren; hainbatek adierazten zuten errespetu faltak, irainak edo portaera desegokiak mutiletan maizago agertzen direla, askotan taldeko kirol edo jolasetan.

“Gorputz Hezkuntzan ikasleen arteko harreman horiek biderkatu egiten dira, errespetu falta horiek biderkatu egiten dira. Gorputz Hezkuntza alde baten ematea buruarentzako oso gogorra da, ze gelan ez dira horren beste arazo edo borroka sortzen” (5.elkarrizketa)

“Egia esan... mutilek zabaltzen dute gehiago ahoa eta protesta gehiago egiten dute, lehiakorrak dira, eta sortzen dira behar bada arazo gehiago: “galdu duzue!” eta “egin duzue tranpa!” edo “zuek zarete ez dakit zer”. Sortzen dira arazo gehiago mutilen artean, neskek ez dakit moldatzen dira hobeto” (2. elkarrizketa)

Nesken eta mutilen arteko harremana ematen ez den moduan, beraien arteko arazoak edota errespetu faltak ere ohikoak ez direla azaltzen zuen beste irakasle batek:

“Errespetu faltak gehiago gertatzen dira mutilen artean, eta gertatzen denean nesken artean ere nesken artean bakarrik da, mutil eta nesken artean ez, ez da ohikoa” (6.elkarrizketa)

Gorputz Hezkuntzako klaseetan mutilek neskekin konparatuz jarrera desegokiak erakusten dituztela ezagutzera eman ondoren, irakasle batzuek hau mutilek pertsonalitate lehiakorrak bat dutelako gertatzen dela adierazi zuten. Gainera, jarrera lehiakor honen ondorioz, mutilek jolasetan edo ariketan irakasleak edo ikasleak ezartzen dituzten arauak errespetatzeko arazo gehiago dituztela ikusi daiteke elkarrizketetan.

“Irainak batez ere mutil eta lehiakorren artean. Mutilak dira askoz lehiakorrak eta galtzea onartzea kostatzen zaie. Ze ikasgaiarekiko jarrera ona dute, baina batzuetan galtzen dira

irabaztearekin. Eta egia da batez ere mutiletan ematen dela. Ze neskak agian ez dakit zergatik pentsatzen dute mutil baten kontra galtzea normala dela eta galtzea ez dute hain txarto hartzen” (5.elkarrizketa)

“Kasu honetan dira mutilak, nagusiak dira. Baina nik daramatzat hemen hiru urte, eta laugarren mailatik behai kostatzen zaie arauak betetzea. Mutilen rola hor nabarmenagoa izaten da, eta tranpak egiten dituzte, ez bazaude adi saiatzen dira tranpak egiten” (3. elkarrizketa)

Ordea, irakasle batek ikuspuntu desberdin bat dauka, eta adin honetan, hau da, Lehen Hezkuntzako ikasleetan jarrera lehiakor horrek generoarekin erlazioa ez daukala uste du.

“Txikiak dira eta zerikusi handia dauka nortasunarekin, bakoitza da den modukua. Nik baditut mutil batzuk direla super zintzoak, beti hitz egiten dute gozo eta laguntzen dute, errespetatzen dituzte arauak. Eta baditut neskak ere guztiz kontrakoak, oso bortitxak direnak hitz egiten, beti ibili behar zara atzetik. Nik adin honetan esango nuke dagoela oso lotuta nortasunarekin, gero egia da adinarekin nik uste dut dela estereotipatzen garela gehiago” (1.elkarrizketa)

Kategoria honekin amaitzeko, irakasleen eta ikasleen arteko harremanari ere erreferentzia egingo da. Ikasle guztiekin harreman berdina duten galdetzean, irakasle batzuk adierazi zuten neskekin zein mutilekin harreman berdina izaten saiatzen diren arren batzuetan ez dela posiblea. Ez hori bakarrik, beste irakasle batek esan zuen, neskek eta mutilek berarekin erakusten duten jarrera desberdina dela zenbat eta ikasleak adinez nagusiagoak izan.

“Saiatzen naiz. Batzuetan ezin da edo ez dakizu. Hau momentu batzuetan bihurtzen da “un alboroto”, mugimendu asko dago eta bakoitzaren nahiak ezin dira asetu batzuetan” (2. elkarrizketa)

“Askotan neskak hurbilagoak izaten dira, batez ere nagusiak direnean. Txikiak direnean ez, lehenengo edo bigarren mailan neskak eta mutil berdin. Bosgarren eta seigarren mailan, batez ere mutilak irakaslearengandik urruntzen hasten dira, paso egiten dute. Igual neskak hurbilagoak izaten dira, baina ez beti. (4. elkarrizketa)

Bestalde, irakasle batek ikasle guztiekin berdin jarduten duela esan zuen arren, ikusi daiteke nola generoaren arabera bakoitzarekin jarrera desberdin bat erakusten duen. Aldiz, beste irakasle batek beste ikuspegi bat dauka, eta ikasleak beraien trebetasun mailaren arabera eta ez generoagatik motibatzen eta animatzen dituela justifikatu zuen.

“Tratatzen ditut berdin. Gainera, nik dakit neska hauen gaitasuna zelakoa den, eta exijitzen dut pixka bat eta ematen dutena izugarrizkoa da. Nik lortu nahi dudana da haien buruarengan konfiantza hartzea eta aurrera egitea, ez geratzea atzeko planoan, gai direla. Hori ikustaraztea da nire helbururik garrantzitsuena neskekin. Eta mutilekin frustrazio horren kudeaketa” (5.elkarrizketa)

“Egia da motibatzen ditudala desberdin. Ez neska edo mutila izateagatik baina bai daukaten kompetentzia motorren mailagatik. Ze ez da berdina, zer esango diozu saiatzen ari denari baina

ez duena lortzen “oso ondo saiatu zara”, eta beste bati bakizula egin ahal duela hobeto ba animatu eta “zergatik ez duzu frogatzen horrela egitera?”(3.elkarrizketa)

Bukatzeko, hezkidetzan formakuntza daukan irakasle baten hitzak jartzea beharrezkoa ikusten dut. Bere iritziz harremanetan genero estereotipoak desagertzeko beharrezkoa da gai honetan formakuntza edukitzea:

“Noski nik uste dut bizi garela bizi garen gizartean, eta zuk ez baduzu jaso inolako formakuntzarik generoaren inguruan azkenean horrelako gauzak daramatzagu gure motxilan. Nik urteak daramatzat formatzen eta bueno daramatzat lanean hogeitapiku orduan claro... eta beti ikasten dituzu gauzak. Jarrira eraman behar ditugu beti betaurreko moreak” (1.elkarrizketa)

6.3. Ikasleen jarrera kirolarekiko eta jarduera fisikoarekiko

Azkenengo kategoria honetan, irakasgaien ikasleek jarduera fisiko desberdinen aurrean erakusten dituzten jarrerak ulertzeko, hasteko, eskolatik kanpo praktikatzeko dituzten ekintzetan edo kirolatan arreta jarriko dugu. Ondoren, Gorputz Hezkuntzako saioren garapenean egiten diren zenbait jarduera edo ariketen aurrean ikasleek dituzten jarrera, jokabide eta sentimendu desberdinak bildu dira; eta hauen ezberdintasunaren arrazoiak ere.

Ikasleek eskolaz kanpoko ekintzetan praktikatuak kirol edo jarduera fisikoei dagokienez, irakasleei gai honen inguruan galdetzean guztiek antzeko erantzunak eman zituzten. Eta esan behar da, halaber, guztien iritziz futbola dela ikasleek gehien praktikatzeko duten kirolatariko bat.

“Egiten dute judo, gimnasia erritmikoa, saskibaloia, futbola, txirrindularitza, igeriketa, hockey, zaldiz ibili, atletismo... bai nik uste dut horiek direla gehienbat” (4.elkarrizketa)

Alabaina, zenbait irakasleek azpimarratu zuten eskolaz kanpoko ekintzak aukeratzeko orduan generoak modu batean edo bestean ere eragina daukela, bereziki, ikasleen adinak gora egin ahala. Ez hori bakarrik, neskek zein mutilek dantza espezialitate desberdinak praktikatzeko dituzten arren, heltzen da momentu bat non bietako batek ekintza praktikatzeari uko egiten dion.

“Nik esaten dizut gaur egun aipatu ditudan kirol guztietan neskek eta mutilak daudela. Baina egia da oraindik txikiak direla, eta nik uste dut adinarekin hori badoala apurtzen” (1.elkarrizketa)

“Lehenengo mailan badago mutil bat egiten duela balleta, hiru mutilek egiten dituztela euskal dantzak eta orduan ondo. Baina gero egia da mailak aurrera doazen heinean kentzen direla eskolaz kanpoko kirol horretatik, eta pena bat da” (3.elkarrizketa)

Horiek horrela, elkarrizketetan ikusi daiteke nola irakasle gehienek aipatzen zuten irakasgaiaren garapenean nabarmenki ikusten dela nork praktikatzeko duen eskolatik kanpo jarduera fisikoren bat. Baina, nahiz eta neskek zein mutilek jarduera fisiko bat praktikatu,

eskolatik kanpo egiten dutena ere generoaren arabera desberdina denez, irakasleen ustez ikasgelan neskek eta mutilek alor batzuetan gaitasun desberdinak erakusten dituzte.

“Nabaritzen da eskolaz kanpoko ekintzetan kirolen bat egiten dutenak gero nire klaseetan konfiantza gehiago daukatenez haien buruan hobeto egiten dutela, bakarrik konfiantzagatik, eta hasiera batean antzematen da pilo bat” (5.elkarrizketa)

“Mutilak gauza askotan beharbada trebeagoak dira, ze praktikatzen dute eskolatik kanpo gehiago orduan nabaritzen zaie. Neskek beharbada aukeratzen dute ballet, aerobik edo dantza eta horrelako gauzak, eta horretan dira oso trebeak. Baina kiroletan nabaritzen zaie” (2.elkarrizketa)

Orain arte aipatutakoak, Gorputz Hezkuntzako irakasgaien ikasleek duten jarreraren eragiten du. Izan ere, ikasleek klasean zenbait jarduera edo kirolen aurrean dituzten erantzunak desberdinak dira. Esaterako, garrantzitsua da aipatzea gorputz adierazpenaren alorrean ikasleek dituzten jarrerak, irakasle guztien arabera hemen oso azpimagarria delako genero estereotipoen eragina. Klasean gai honen inguruko lanketa egiten denean bereziki mutilak kexatzen dira, eta beraien jarrera eta parte hartzea ez da egokia. Gainera, beste irakasle baten ikuspuntutik alor honetan mutilek eta neskek sentimendu desberdinak erakusten dituzte, lotsa gehienbat mutiletan ikusten dela justifikatuz.

“Ikusi dudanagatik orain arte uste dut mutilei kostatuko zaiela pilo bat. Ze badaude batzuk gustoko dutela eta primeran egiten dutela, baina mutil gehienak gorputz adierazpenean... Zelako jarrera txarrak. “Hau ez da gorputz hezkuntza”, “hau ez da kirol bat”, horrela egunero. Mutilak geratzen ziren eserita boikoteatzen klasea, izan zen pasada bat” (5. elkarrizketa)

“Dantzaren aurrean batzuk bai lotsatu egiten dira, mutilak gehiago. Hori kirolaren kontrakoa da ezta? mutilak egingo dugun oilar borroka horretan batzuei lotsa gehiago, eta lotsa handiagoa emango dien horretan mutilak gehiago izango dira neskak baino” (4.elkarrizketa)

Irakasle batzuen iritziz hau ikasleek gorputz adierazpenaren arloa dantza eta musikarekin bakarrik erlazionatzen dutelako gertatzen da. Horregatik, dantzatik haratago doazen planteamendu metodologiko desberdinak egiten saiatzen dira, nesken zein mutilen interesa pizteko helburuarekin, adibidez, sketch-ak prestatu eta grabatzea, edota:

“Lotzen dut gorputz adierazpena txiribueltak eta mortalak egitearekin, eta alde hori gustatzen zaie eta gero eskatzen zuten, aterako ditugu tranpolinak, koltxonetak...” (3. elkarrizketa)

Hau guztiaren ondorioz, irakasleek esan zuten lantzen ari direnaren arabera, mutilek eta neskek gaitasun fisiko eta motor desberdinak erakusten dituztela ikasgaien. Batzuek diotena da, neskei ez bezala, mutilei gehiago kostatzen zaiela gorputz adierazpenaren esparruan gustura sentitzea, batez ere ez daudelako ohituta. Eta adibidez, elkarrizketan ikusi daiteke nola neskekin konparatuz, mutilek klasean ohikoak diren kirolak praktikatzean jarrera parte-hartzaileago eta trebetasun handiago bat erakusten duten.

“Gorputz adierazpena lantzen duzunean edo koreografia bat prestatu behar dutenean, hor bai ikusten da, eta hor bai estereotipoak izan ahal dela mutilei gehiago kostatzen zaiela ez daudelako ohituta egiten” (6.elkarrizketa)

“Mugimendu gehiago suposatzen duten kiroletan mutilak mugitzen dira gehiago, praktikatzen dute futbola, saskibaloia, atletismo.. eta frontoian egiten dugunean eskuz, pala, raketak... berdin egiten dute guztiek, baina erraztasun gehiago edukiko dute mutil batzuk, baina normal. Neska batzuk ere hasi dira futbolera jolasten eta futbolera joaten dira” (2.elkarrizketa)

Honen haritik, aipagarria da irakasle askok neskak eta futbolaren inguruan erreferentziak egin zituztela. Kirolen inguruan hitz egitean, adibidez, askori klasean neskek futbolarekiko duten jarrera harritu egiten diela aipatu zuten. Baina, irakasle batek esandakoa azpimarratu behar da, izan ere, bere ustez neskak orain arte gure gizartean mutilenak kontsideratu diren kirolak praktikatzen hasi direlako da, futbola barne. Horrela ere, gure gizartean genero batentzat beste batentzat baino egokiagoak diren kirolak egon direla ulertzera eman zuten.

“Nahiz eta uste dut bi neskek jolasten dutela futbolean, klasean dagoen motibazioa futbolarekiko bai nesken eta bai mutilen aldetik oso altua da. Normalean egiten denean tipiko futbola, bai neskak bai mutilak poz-pozik parte hartzen dute eta horrek harritu nau adibidez” (3.elkarrizketa)

“Neskak sartzen dira gehiago orain arte mutilenak ziren jolasetan edo kiroletan. Baina mutilen kasuan ez doa berdin, mutilak ez dira sartzen dantza egiten edo horrelako gauzetan. Mutilei nesken aldera joatea kostatzen zaie askoz gehiago. Neskak ikusten da sartzen direla futbolera, eta saskibaloian ere. Mutilak nesken jolasetara edo rolera askoz gutxiago edo inoiz” (2.elkarrizketa)

Orain arte esandakoak, erlazioa du ere ikasgaien “denbora libre” eskeintzen zaienean ikasleek erakusten dituzten jarrerekin. Elkarrizketatutako irakasleek metodologia desberdinak jarraitzen dituzte. Batzuk denbora honetan ikasleei bakoitzak nahi duena egiteko aukera ematen diete. Beste aldetik, bi irakaslek denbora libre arautzearen aldekoak dira, gela zoramen espazioa ez bilakatzeko helburuz.

“Denbora libre da egiteko bakoitzak nahi duena eta aukeratzen dute haiek, ni hor ez naiz sartzen. Arauak dira betikoak, errespetua, borrokarik ez... baina bakoitzak nahi duena” (2.elkarrizketa)

“Nik ez dut klasea ematen eta ikasleek prestatzen dute, baina taldean. Taldeak erabakitzen du zer egin eta beraiek bideratzen dute. Gainera beraiek adosten badute polita da, han badago taldeko lan bat atzetik eta beraiek adostu dituztenez arauak... bete behar dituzte” (1.elkarrizketa)

Hala ere, denbora librerako momentuan eskola eta ziklo bakoitzean ikasleek dituzten jokaerak antzekoak dira. Lehenengo eta bigarren zikloan, irakasleen elkarrizketak kontuan hartuz, ikasleek jarrera oso antzekoak dituzte. Goiko zikloetan, gehienbat taldeko kirolek garrantzia hartzen dute, bereziki, futbolak; baina antzeko jarrerak ere erakusten dituzte.

Haatik, aipatzekoa da hiru irakaslek denbora librean genero aldetik ikasleen artean desberdintasunak ikusten dituztela:

“Lehenengo zikloan gustatzen zaie pila bat jolastea koltxonetekin, gero bebai zesta-punta gustatzen zaie asko, eta beste batzuei gustatzen zaie jolastea zapiekin eta sokekin, jolas sinbolikoak. Hirugarren zikloan, normalean bebai koltxonetak nik uste direla lo mas... eta baloiek irabazten dute garrantzia, ez bakarrik jolasteko futbolera baizik eta orokorrean” (3.elkarrizketa)

“Aukeratu zuten futboleko jolastea, gehiengo handia, agian bi edo horrela ez baina gehiengo handia futbola, neskak zein mutilak” (5.elkarrizketa)

“Mutil gehienak aukeratzen dute denbora libre dagoenean futbola, eta neskek aukeratzen dute beste modu batean, soka, goma, taldean koltxoneta lodia gustatzen zaie izugarri, hula-hop, saskibaloia, horrelako gauzak” (2. elkarrizketa)

Orain ikasleek Gorputz Hezkuntzan orokorrean, hau da, jarduera fisikoarekiko erakusten dituzten jokabideetan arreta jarriko dugu. Elkarrizketetan ikusten denez ikasleek zenbait egoeren edo jardueren aurrean segurtasun gabeko jarrerak erakusten dituzte; geldirik eta beldurtuta geratzen dira, adibidez, altuera jauzietan edo txiribuelletan. Baina bi irakaslen ikuspuntutik, orokorrean neskak izaten dira gehienbat saioetan konfiantza falta erakusten dutenak; aldiz, mutilek jarrera ausartagoak erakusten dituzte.

“Izan daiteke baten batek esatea “nik hori ez dut egingo”, eta gainera adieraztea “beldur naiz”. Orduan esaten diet “bueno saiatu, baina ez baduzu horrela egin nahi saiatu modu honetan”, eta alternatibak ematen badizkiezu errezteko beraien prozesua eta gainditzeko beldurra, azkenean egiten dute” (1.elkarrizketa)

“Ikusten da hemen neskak ez badute super gai ikusten bere burua geratzen dira bigarren plano batean, ez dira hainbeste ausartzen. Hori mutilek ez dute egiten, aurrera doaz, normalean gero ematen dute errealitatearen kontra eta frustrazio hori ateratzen dute baina hasiera batean aurrera doaz. Neskak kontu handiz joaten dira, eta nabaritzen da pilo bat” (5.elkarrizketa)

Gainera, ikasleek frustrazioaren edo porrotarren aurrean dituzten jokabideak generoaren arabera desberdinak dira. Mutilek jarrera lehiakorragoa erakusten dutenez, zeozer egitea lortzen ez dutenean haserretu egiten dira, gelaren aurrean txarto geratu direla sentitzen dutelako.

“Batez ere neskak geratzen ziren geldirik. Mutilak saiatzen ziren baina ez zutenean lortzen haserretzen ziren pilo bat bere buruarekin, eta hasten ziren ostikadak eta ukabilkadak ematen kojinei adibidez. Haserretzen ziren pila bat haien buruarekin, neskak pues hasten ziren negarrez edo gelditzen ziren. Erreakzioa ez zen berdina nesketan edo mutiletan” (3.elkarrizketa)

Edonola ere, segurtasun eza edo beldur horrek generoarekin erlazioa ez duela baieztatu zuen beste irakasle batek, jarrera horiek ikasle bakoitzaren bizipenen arabera direla uste duelako:

“Ume batzuk datoz kaletik eta kirol mundutik eta beste batzuk ez, orduan segun ze praktika jartzen duzun batzuk sentitzen dute beldurra. Baina nik ez nuke esango neska edo mutila izateagatik, baizik eta izan dituen bizipenengatik” (1.elkarrizketa)

Zenbait irakasleren ustez neskek eta mutilek Gorputz Hezkuntzako saioetan zehar dituzten jarrera desberdinak, esaterako, segurtasun eza, gure gizartean jatorria izan dezaketela uste dute. Irakasleei emakumeak kirol munduan bigarren plano baten dauden uste duten galdetzean, gaiaren inguruko ikuspuntu desberdinak eman zituzten; irakasle batek aldaketaren inguruan hitz egin zuen. Beste baten ustez mutilekin alderatuz emakumei kirol arloan gehiago exijitzen zaie, eta horrek neskek irakasgaietan duten jarreraren eragiten du; azkenean, beraien buruarekin gogorak eta lehiakorak izatera eramaten dituelako.

“Gaur egun gero eta gutxiago. Eskolan nabaritzen da, gero eta gehiago sartzen direla. Sarrera hori oraindik asko falta da baina sartzen ari dira gero eta gehiago, eta gizartean ere bai gero eta gehiago, aldaketa badoa motel edo azkar ez dakit, baina badoa” (2.elkarrizketa)

“Nik uste dut orokorrean kirolen munduan eta gizartean arlo guztietan, emakumei exijitzen zaigula perfekzio bat edo maila oso altu bat gizonezkoek ez zaiena eskatzen (5.elkarrizketa)

Atal honekin amaitzeko, elkarrizketa egin bitartean irakasle batek egindako gogoeta jarriko dut. Bera Gorputz Hezkuntzako irakasle gisa genero estereotiporik gabeko irakaskuntza bat eskeintzeko duen betebeharrak eta ahalmenak jabetu zen:

“Agian guk ez dizkiegu erakusten hainbeste eredu edo joaten gara bakarrik arlo motorrera eta praktikara, eta uzten dugu teoria ahaztuta, eta hori bebai interesgarria izango zen. Eman ahal dizkiegu ere adibide batzuk, teoria ez zait gustatzen lantzea, baina agian bideoen bat jartzen baduzu jartzea ere emakumeen bideoak eta ez bakarrik mutilenak. Hortik bebai egon ahal da aukera hobetzeko. Ekintza batzuekin lagundu ahal dugu berdintasunaren alde gure granitok jartzen, ez dugu aldaketa guztia egingo baina bai gure ekarpena” (3.elkarrizketa)

7. ONDORIOAK

Analisi kualitatibo honen helburu orokorra Gorputz Hezkuntzako irakasle talde baten pertzepzioaren bitartez, Gorputz Hezkuntzako irakasgaietan dauden genero estereotipoak zeintzuk diren ezagutzea izan da. Gauzak horrela, sei irakasleen pertzepziotik irakasgaietan aurkitu daitezkeen genero estereotipo desberdinak ezagutu ostean, ondorioztatu da genero estereotipo horiek ikasgai honetan modu transbertsalean eragiten dutela. Azken finean, irakasgaiaren egunerokotasunean hainbat momentutan eta formatan agertzen direlako, Garcia-Prieto eta Arriazu-Muñozek (2020) adierazi bezala. Irakasleen lanean, hau da,

irakaskuntza prozesuetan, ikasgelan ematen diren harremanetan eta ikasleen jokabideetan eta jarreretan, bereziki kirol eta jarduera fisiko desberdinen aurrean dituztenak, besteak beste.

Bestalde, analisiaren bost helburu zehatzei dagokionez, lehenengoak bereziki irakasgai honetan erabilitako metodologia aztertzeari erreparatzen dio. Gorputz Hezkuntzako irakasleen irakaskuntza prozesuetan eta portaeretan aurrera pausu nabaria eman da, baina oraindik ere genero estereotipoen presentziaz hitz egin behar da, nahiz eta kasu batzuetan modu inkontziente batean eman. Salazarrek (2020) ondo esan bezala, irakasleek beraien lanean nahi gabe transmititzen dituzte, hain barneratuak dituztenez nekez antzematen dituztelako. Esaterako, jakin izan da irakasle batzuentzat oraindik ere kirolak saioen ardatz nagusia izaten jarraitzen dutela, eta gutxi batzuk hasi direla kiroleetatik haratago doazen unitate didaktikoak prestatzen eta erabiltzen (Sanz, 2016).

Egia da, emakumeak eta kirol mundua erlazionatzeko eta hurbiltzeko helburuz estrategia metodologiko desberdinak bilatzen saiatzen direla. Beste alderdi positibo bat da, irakasle gehienak saioetan zehar ikasleen talde lana eta kooperazioa sustatzearen alde egin dutela; Alvariñas-Villaverde eta Pazos-Gonzálezek (2018) nesken zerbait lagungarria bezala ikusten dutena. Hala ere, nabaria da irakasle guztiek ez dutela genero ikuspegia beraien irakaskuntza prozesuan aplikatzeko gaitasun eta baliabide berdina, horregatik Lleixak *et al* (2020) bere lanean defendatzen duen formakuntzaren beharra agerian geratzen da.

Bigarren helburuaren harira, Gorputz Hezkuntzako klaseetan ikasleen artean izaten diren harremanetan, nabarmendu behar da jokabide estereotipatuak eta harreman eredu tradizionalak ematen direla. Hori dela eta, Serraren *et al* (2022) datuekin bat eginez, ikusten da mutilen eta nesken artean erlazio eta interakzio gutxi dagoela, eta ohitura daukatela generoaren arabeko talde bereiziak sortzeko. Gainera, mutilak oldarkoragoak direla dioen ideia estereotipuari erreferentzia eginez, Hídalgo eta Almonacik (2014) baieztatzen dutena; egiaztatu da lan honetan ere ideia honen eragina nabaria dela. Mutilek ikaskideekiko errespetu falta gehiago izaten dituztelako, neskek baino jokabide desegokiagoak erakutsiz.

Harremanak mugatzeaz gain, diskriminazio egoerak behatu daitezke, taldekatzeak sortzean trebezia gutxien duten kideak azkenak geratzen direlako (Nabera, 2017). Bestetik, hitz egin beharko litzateke genero bakoitzari ezarritako izateko moduak sentimenduak adierazteko eran duten eraginaz. Frustrazioaren edo porrotaren aurrean mutilek jarrera agresiboak dituztelako, objektuei ostikadak ematearen punturaino; aldiz, Ramirezek (2021) ere esan bezala, neskek jarrera lasaiagoak eta sentikoragoak erakusten dituzte.

Hirugarren helburuari dagokiolarik, emaitzak kontuan hartuz ikus daiteke lotura bat dagoela generoaren eta ikasleek Gorputz Hezkuntzako irakasgaien duten parte hartzearen artean. Ondorioztatu da Lehen Hezkuntzan kursoak aurrera egin ahala, bereziki hirugarren zikloan, nesken parte hartzea eta ikasgaiarekiko motibazioa jeitsi egiten dela, Arenasen *et al* (2022) emaitzekin bat eginez. Hau jakinda, honetarako hainbat arrazoi kontuan har daitezke, baina guztiek dute erlazioren bat genero estereotipoekin. Irakasleen pertzepzioa kontuan hartuta, esan dezakegu izan daitekela mutilek kirolekiko interes handiagoa dutelako; edota neskek sentitzen dutelako mutilek baino trebezia gutxiago dutela, eta ondorioz beraien gaitasunetan konfiantza berdina ez dutelako. Azken honek, erlazio dauka Serrak *et al* (2022) bere lanean justifikatutakoarekin.

Gainera, lantzen diren edukien arabera ikasleek interes desberdina erakusten dute, eta jarduera batzuetan mutilek gehiago erakusten dute, eta beste batzuetan neskek. Hori Rodriguezek (2016) baieztatutako ideiarengatik izan daiteke, hau da, nesken eta mutilen gustuak eta lehentasunak desberdinak direla jarduera fisikoari buruz duten pertzepzioaren arabera, segurtasuna ematen dieten jarduerak aukeratu ohi dituztelako. Gauzak horrela, ondoriozta dezakegu egoera hau gertatzen dela, adinak gora egin ahala sozializazio prozesuaren bidez ikasleen pentsamenduan sendotuz joan diren genero estereotipoengatik.

Bestalde, gizartean “emakumeen kirolak” eta “gizonezkoen kirolak” daudenaren pentsamenduari dagokionez, zehazki Arencibiak (2021) defendatutakoa. Hain nabaria ez den arren, ondoriozta daiteke gure artean urte askoz egon den ideia honek oraindik ere, modu batean edo bestean, eragina duela Gorputz Hezkuntzako irakasgaien. Esaterako, ideia horrek eskoletan presente jarraitzen duela baieztatzeko, nahikoa da mutilek gorputz adierazpenaren arloan duten jarreraz eta portaera negatiboaz hitz egitea.

Hala ere, lanaren emaitzek Alemanyk *et al* (2019) lortutakoekin bat eginez, gaur egun neskek eta mutilek zaletasun eta kirol gehiago partekatzen dituztela erakusten digute, adibidez, futbolaren kasua. Horrek pentsarazten du portaera eta pentsamendu aldaketa bat egon dela, gainera, ikasleek eskolaz kanpoko jardueretan egiten dituzten kirol gehienetan nesken eta mutilen presentzia dago; ideia hauek Sanzen (2016) emaitzen ildotik doaz. Baina kontuan hartu behar da adinak gora egin ahala honako egoera hau apurtu egiten dela, kirol modalitate batzuk praktikatzeko oztopoak areagotu egiten direlako (Serra *et al*, 2020); eta baita, irakasgaien goiko zikloetan mutilek kirolekiko interes gehiago erakusten dutelako.

Helburu zehatzekin amaitzeko, datuak aintzat hartuz ezin dugun justifikatu kirolaren munduan neskei eta mutilei jarrera eta ezaugarri zehatz batzuk esleitzen zaizkienik; baina bai irakasleen pertzepziotik Gorputz Hezkuntzako irakasgaien bakoitzak erakusten dituen jarrera estereotipatu batzuk aipatu ditzazkegu. Mutilak ausartak erakusten dira jarduerak

burutzen, gainera, neskak baino jarrera lehiakorragoa erakusten dute, eta ondorioz galtzea kostatu egiten zaie arauak errespetatzeko arazoak edukiz. Ostera, neskak ez dute konfiantza berdina haiengan buruarengan, eta mutil baten aurka galtzea normaltzat hartzen dute batzuetan; ondorio hauek erlazio zuzena daukate Salazar eta Looren (2021) eta Hidalgo eta Almonacien (2014) ikerketekin. Alabaina, formakuntza daukan irakasle baten ikuspuntutik jarrera hauek ez daukate erlazioa generoarekin, baizik eta ikasle bakoitzaren nortasunarekin, eta norberak kirol eta jarduera fisikoaren munduarekin izan dituen esperientziekin eta bizipenekin.

Ateratako ondorioak ikusita, teorikoki lan honek Gorputz Hezkuntzako irakasgaien genero estereotipoen presentzia berresteko balio du; orain arte burututako ikerketa askok ere egiten duten bezala. Beste lan batzuekin batera, honetan ere gure gizartean agerikoak diren genero estereotipoen transmisioan eta iraunazian eskolak duen rolan arreta jarri da. Horrela, nabarmendu egin da eskolek eta irakasleek genero estereotiporik gabeko hezkuntzaren alde borrokatzerako orduan duten ahalmena eta erantzunkizuna. Arlo praktikoari erreparatuz, esan dezaket lan hau ikerketa berrietarako gonbidapena edo abiapuntua izan daitekela; genero estereotipoek Gorputz Hezkuntzako ikasgaien duten eragina aztertzeko helburua dutenak. Beraz, nire itxaropena da, lan honen emaitzek eskoletan genero ikuspegitik hezkuntza proposamenak eta berrikuntza proiektuak eraikitzeke beharraren inguruko eztabaida irekitzeko balio izatea.

Azkenik, lanaren hasieran aipatu dudak bezala, txikitatik gizarteak esan eta erakutsi diguna zalantzan jartzeko, horren inguruan hausnartzen hastea aldaketaren bidean ekiteko abiapuntua izango da. Honekin adierazi nahi dut, agerikoa dela elkarrizketatutako irakasleak kontzienteak direla genero estereotipoek Gorputz Hezkuntzako eskoletan duten eraginaz. Baina, egoera honen aurrean hausnarketatik ekintzara pasatzeko bidean, bistan da irakasle guztiek ez dutela behar adina ezagutza, prestakuntza edo jarrera arazo honen aurrean zuzen jarduteko. Gainera, kontuan hartu behar da elkarrizkatutako sei irakasleen artean bik baino ez dutela formakuntza hezkidetzan. Hortaz, lan honetan bildutako informazioak, agerian uzten du irakasleen prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren garrantzia eta beharra.

Etengabeko formakuntza hau beharrezkoa da, bai eskoletan jadanik lanean ari diren irakasleentzat, bai unibertsitatean eta goi-mailako ikasketetan hezitzen ari direnentzat. Horrela, irakasleei baliabideak eta tresnak emango zaizkie ezagutza egokiak izan ditzaten Gorputz Hezkuntzako arloan genero ikuspegia aplikatzeko; eta baita beharrezkoa denean, norberaren akatsei buruz eta irakaskuntza prozesuari buruz hausnartzeko gai izango dira. Laburbilduz, prestakuntza horrek aukera emango du genero eredu eta harreman tradizionalak eraldatzen eta ezabatzen dituen eskola eta hezkuntza bat eraikitzeke, aldi

berean, Gorputz Hezkuntza arloko irakaskuntzan modu positiboan eragingo duena. Horrela, ba, eskolak eta irakasleek ikasle guztien berdintasuna eta aukerak bermatu behar dituzte; eta gizartearen aniztasuna hezkuntza aberasteko eta bultzatzeko tresna gisa erabili behar dute, ez desberdintasun edo diskrimazio egoerak sortzeko.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lana bukatu eta gero, egindakoaren inguruan hausnartzeko momentua heldu da. Hasieran zehaztu nituen helburuak bete ditudala ikusi ondoren, egindako lanarekin pozik nagoela esan behar dut; baita honaino heltzeko egindako prozesuaz. Jakinik lan honen abiapuntua praktikan izan nuen bizipen bat, eta modu berean, eskolen errealitatea ezagutzeko jakin-mina izan direla, uste dut une oro lanarekiko eta gaiarekiko jarrera egokia eta positiboa izan dudala; uste baitut etorkizuneko edozein irakasle gai eta arazo honen jakitun izan behar dela. Horretaz gain, metodologia kualitatibo berri bat ezagutu eta aplikatu izana nire ezagutzak handitu dituelakoan nago; gainera, lehen erabiltzen ez nekien programa informatiko bat erabiltzen ikasteko aukera izan dut, hau da, Atlas Ti-a.

Hala ere, argi dago lana hobetze aldera badaudela zenbait aldaketa egiteko aukera. Irakasleei elkarrizketak egiteko erabili den gidoriari dagokionez, erabilitako tresna egokia izan dela uste dut, beharrezko informazioa biltzeko aukera eman duelako. Baina hauek egin eta gero, ohartu naiz agian galdera batzuen erantzuna oso bistakoa zela, edo galdera batean oinarrituta jaso nahi zen informazioa ez dela lortu; beraz, elkarrizketak egin bitartean honetan esku hartu behar izan da. Horregatik, orain galdera batzuk berriz formulatzea egokia izan litekeen, edota galdera berri batzuk gehitzea.

Bestalde, egia da nire inguruko eskoletan dagoen errealitatea ezagutzeko helburuz, elkarrizketa guztiak nire bizilekutik gertu dauden eskoletan egin ditudala. Baina interesgarria eta aberasgarria izango litzateke ere, adibidez, eskola handietako errealitatea ezagutzea; esaterako, Bilbo edo Gasteiz bezalako hiri batean kokatutako eskoletakoa. Horrek testuinguru eta errealitate desberdinak konparatu eta biltzeko aukera emango luke, analisi hau aberasteko aukera emanez.

Horretaz gain, Gorputz Hezkuntzako zenbait saioen behaketak egiteko gogoekin geratu naiz; azken finean, informazioa eta datuak biltzeko beste teknika edo modu bat da. Modu honetan, biltzen dugun informazioa aurkitzen garen testuinguruan hautematen dugunaren arabera izaten da, eta ez irakasleen pertzepzioaren arabera, lan honetan egin den bezala. Baina, izan daiteke horrek informazio gehiegi edukitzea ekarri ahalko zuela, eta beharbada hainbeste informazioarekin analisisa egitea zaildu egingo zen.

9. ERREFERENTZIAK

- Alarcon, A. A., Munera, L. eta Montes, A. J. (2017). La teoría fundamentada en el marco de la investigación educativa. *Saber, ciencia y libertad*, 12(1), 236-245.
- Aleman, I., Aguilar, N., Granda, L. eta Granda, J. (2019). Estereotipos de género y práctica de actividad física. *Movimiento*, 25, 1-16.
- Alvariñas-Villaverde, M. eta Pazos-González, M. (2018). Estereotipos de género en Educación Física, una revisión centrada en el alumnado. *Revista electrónica de investigación educativa*, 20(4), 154-163.
- Arenas, D., Vidal-Conti, J. eta Muntaner-Mas, A. (2022). Estereotipos de género y tratamiento diferenciado entre chicos y chicas en la asignatura de educación física: una revisión narrativa. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (43), 342-351.
- Arencibia, J. R. (2021). *Estereotipos de género en Educación Física*. [Grado amaierako lana]. La Lagunako unibertsitatea, Hezkuntza Fakultatea, Espainia.
- Cázar, R. C. (2019). Proceso de socialización en jóvenes de escuelas secundarias en el acceso y uso de Internet a partir de un modelo estructural. *Educación, lenguaje y sociedad*, 16(16), 1-28.
- Cuñat, R. J. (2007). Aplicación de la teoría fundamentada (grounded theory) al estudio del proceso de creación de empresas. *Decisiones basadas en el conocimiento y en el papel social de la empresa: XX Congreso anual de AEDEM*, 1-12.
- Espinoza, Y. eta Tapia, S. J. (2019). Educación y género. *Mamakuna*, (12), 10-17.
- Gaete, R. (2014). Reflexiones sobre las bases y procedimientos de la Teoría Fundamentada. *Ciencia, docencia y tecnología*, (48), 149-172.
- García-Prieto, I. eta Arriazu-Muñoz, R. (2020). Estereotipos de género en educación infantil: un estudio de caso desde la perspectiva sociocultural. *Zero-a-seis*, 22(41), 4-30.
- García-Villanueva, J., Moreno-García, D., Hernández-Ramírez, C. I. eta Gamba-Mondragón, L. A. (2017). Mediciones de masculinidad y feminidad en docentes de Educación Física. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y del Deporte*, 17(67), 541-557.
- Hernández, R. M. (2014). La investigación cualitativa a través de entrevistas: su análisis mediante la teoría fundamentada. *Cuestiones Pedagógicas*, 23, 187-210.

- Hidalgo, T. C. eta Almonacid, A. (2014). Estereotipos de género en las clases de educación física. *Revista Motricidad Humana*, 15(2), 86-95.
- Lleixà, T., Soler, S. eta Serra, P. (2020). Perspectiva de género en la formación de maestras y maestros de Educación Física. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 37, 634-642.
- Monforte, J. eta Úbeda-Colomer, J. (2019). 'Como una chica': un estudio provocativo sobre estereotipos de género en educación física ('Like a girl': a provocative study on gender stereotypes in physical education). *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (36), 74-79.
- Monge, V. (2015). La codificación en el método de investigación de la grounded theory o teoría fundamentada. *Innovaciones educativas*, (22), 77-84.
- Monzonís, N. eta Capllonch, M. (2015). Mejorar la competencia social y ciudadana: innovación desde Educación Física y tutoría. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (28), 256-262.
- Naberan, M. (2017). *EMAKUMEAK ETA KIROLA: badaude genero-estereotipoak Lehen Hezkuntzan?*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Espainia.
- Páramo, D. (2015). La teoría fundamentada (Grounded Theory), metodología cualitativa de investigación científica. *Pensamiento & gestión*, (39), 1-7.
- Ramírez, J. V. (2021). *Los estereotipos de género presentes en la educación inicial*. [Lizentziatura tesia]. Unibertsitate Politekniko Salesianoa, Hezkuntza fakultatea.
- Rodríguez, M. (2016). *Percepción de estereotipos de género en educación física en alumnos de secundaria. Implementación de una unidad didáctica de gimnasia rítmica*. [Master amaierako lana]. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa, Espainia.
- Salazar, C. (2020). Los estereotipos de género en las aulas de Educación Infantil. La Lagunako Unibertsitatea, Espainia.
- Salazar, G. A. eta Loor, E. G. (2019). *Estereotipos de género en la convivencia escolar. Diseño de campaña educativa*. Guayaquileko Unibertsitatea, Filosofía, Letra eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.
- Sanz, C. (2016). *Identidades masculinas: estereotipos de género y participación en la educación física, la actividad física y el deporte*. [Doktorego tesia]. Madrilgo unibertsitatea, Hezkuntza Fakultatea, Espainia. [T38112.pdf \(ucm.es\)](#)

Serra, P., Cantallops, J., Palou, P. eta Soler, S. (2020). ¿Siguen existiendo los estereotipos de género en la Educación Física? La visión de las adolescentes. *Journal of Sport and Health Research*, 12(2), 179-192.

Vizcarra, M. T. eta Garay, B. (2014). Zerbait aurreratu da Gorputz-Hezkuntzan eta kirolean genero ikuspegitik?. *Jakingarriak*, 74, 46-56.

10. ERANSKINAK

10.1. Eranskina: Elkarrizketarako gidoa

Kaixo, ni Ainhoa Orueta naiz eta Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari naiz Euskal Herriko Unibertsitatean; zehazki, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, eta Gorputz Hezkuntzako minorra ere burutu dut. Momentu honetan, nire Gradu Amaierako Lanerako, Lehen Hezkuntzan Gorputz Hezkuntza irakasgaia ematen duten irakasleen laguntza behar dut. Lanaren helburu nagusia Gorputz Hezkuntzako klaseetan dauden genero estereotipoak zeintzuk diren ezagutzea da. Horregatik, zure laguntza edukitzea gustatuko litzaidake, eta horretarako galdera batzuk erantzun beharko zenituzke bakarrik.

Hasi baino lehen zuri gogoraraztea elkarrizketa audio bidez grabatua izango dela, baina datu guztiak momentuoro modu anonimo batean landuko direla.

Hasierako galderak:

1. Zeintzuk dira zure ikasketak?
2. Zenbat urte daramatzatu irakasle bezala lan egiten? eta Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala?
3. Berdintasunean, hezkidetzan edo genero estereotipoetan prestakuntzarik duzu edota kurtsoren bat burutu duzu?
4. Gorputz Hezkuntzako zenbat klase ematen dituzu? Zein ziklotan ematen dituzu eta zein da ikasleen adina? Zein da gela bakoitzeko ikasle kopurua (gutxi gora behera)?

Helburu zehatzetan oinarritutako galderak:

1. DIMENTSIOA (Irakaslea)
 - 1.1. Nola prestatzen dituzu Gorputz Hezkuntzako klaseak? Zein metodologia esango zenuke erabiltzen duzula?
 - 1.2. Bai neskek bai mutilek prestatzen dituzun klaseekiko errespetua eta interesa erakusten dute? Eta zuk ikasle guztiekin, neskak zein mutilekin, harreman berdina duzula uste duzu?
 - 1.3. Nolako da nesken eta mutilen jarrera Gorputz Hezkuntzako klaseetan?
2. DIMENTSIOA (Ikaslea)
 - 2.1. Nolakoak dira ikasleen arteko harremanak Gorputz Hezkuntzako klaseetan?

2.2. Ikasle guztiek pareko parte-hartzea dute klaseetan? Eta interes berdina erakusten dute irakasgaiarekiko?

2.3. Ikasgelan aurretik landu edo praktikatu ez diren jarduera fisikoak edo kirolak burutzean, nolakoa da neskek erakusten duten jarrera? Eta mutilena?

3. DIMENTSIOA (Kirolak)

3.1. Badakizu zein motatako kirolak praktikatzen dituzte zure ikasleek eskolaz kanpoko ekintzetan adibidez? Horrek Gorputz Hezkuntzako klaseetan eragina duela behatu izan duzu?

3.2. Zein motatako kirolak praktikatzen dituzu klasean? Nolakoa da ikasleen erantzuna kirolaren arabera?

3.3. Normalean Gorputz Hezkuntzako klaseetan zer nahiago izaten dute ikasleek praktikatzea, jarduera fisiko indibidualak edo taldekoak? Zein izan daiteke horren arrazoia?